**Goienka2a** — **Graffitiak: hormak apaintzen dituen artea**

**HERRIZ HERRI** — Santa Ageda mutilak dantzarako eta kanturako prest /5

**KIROLA** — Triatloia jokatuko da ekainaren 9an Arrasaten eta Urkulun /10

**JON ANDUEZA** — *"Ikus-entzunezkoak beti gustatu izan zaizkit; orain, gehiago"*/9




# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2001eko otsailaren 2a • II. urtea • 8. zenbakia • DOAN BANATZEKOA


**ASTEKO GAIA: DELITUGILE GAZTEENDAKO ZENTROA ZABALIK ARAMAION /2-3**




## Debagoiendar bat Pirenan

Gure inguruan Pirena da txakur nordikoen leren lasterketa ospetsuenetakoa, eta lasterketa horretan debagoiendar bat ari da esku hartzen, Axen Garitano bergararra, hain zuzen ere. Azken zazpi aldietan izan dugu Pirenan. Zapatuan La Molinan amaituko da lasterketa, eta *Goienkaria* martitzenean egon zen Axenekin, Font Romeun zegoela. Probaren nondik norakoak azaldu dizkigu. /11

# Metalgintzan greba egiteko deia zabaldu dute sindikatuek

Metalgintzan grebarako dei egin dute Debagoieneko ELA, LAB eta ESK sindikatuek. Gaur, egubakoitza, eta datorren eguen eta egubakoitzean egingo dute greba, enpresarien elkartearekin (ADEGUI) dituzten negoziazioek aurrera egiten ez badute. Gehiengo sindikalak egin du grebarako deia; UGT eta CCOOk, ostera, ez dute bat egin gaurko iragarrita zegoen lanuztearekin.

35 orduko lan-astea lortu bitartean, aurten 40 ordu murriztea eskatzen dute sindikatuek. Horrez gain, soldatak sei puntu, hau da, KPI gehi bi puntu, igotzea ere eskatzen dute.

Sindikatuetako ordezkariek eguaztenean prentsaurrekoan adierazi zutenez, negoziazio mahaia hiru bider batu da, azkena, prentsaurrekoa baino ordu batzuk lehenago, eta patronalak egin duen azken eskaintza ez dute onartu. Hauxe da azken eskaintza: soldaten benetako igoera %2,8koa, eta tauletan, %4koa. Lanorduen murrizketari dagokionez, lau urtean 16 ordu, hau da, urtean lau ordu, murriztea.

Lanuztearekin batera, hainbat manifestazio egingo dituzte sindikatuek: gaur, egubakoitza, eguerdian, manifestazioak egitekoak ziren Bergaran eta Eibarren. Horrez gain, auto-ilara ere bai. Langileen ordezkariek dei egin diete kooperatiba enpresetako langileei ere, batez ere, behin-behineko kontratuak dituztenei, hau da, bazkide ez direnei, mobilizazio hauekin bat egin dezaten.

Langileen ordezkariek adierazi duten bezala, kooperatibetan daudenei ere eragiten die lan-hitzarmenak. /3

### Greba egiteko arrazoiak

1. **Sindikatuek eskatu dute aurten 40 lanordu murriztea.**
2. **Patronalak lau urtean 16 ordu murriztea eskaini du .**
3. **Soldatak sei puntu, hau da, KPI gehi bi, igotzea eskatu dute sindikatuek.**
4. **Igoera %2,8koa, eta tauletan %4koa, izatea eskaini du patronalak.**

JAIAK ASTEBURUAN

## San Blas eta Santa Ageda nonahi

San Blas eta Santa Ageda ospatuko dira asteburuan bailarako hainbat herritan. San Blasak, Bergarako Murinondon, Aretxabaletako Sailuenten, Antzuolako Basalden eta Elgetako Arantzetan. Besteak beste, San Blas opilak bedeinkatuko dira. Arrasateko Jentil Ola elkartean, ostera, Santa Ageda jaiak ospatuko dituzte, eta bailarako herrietan Santa Ageda eskean ibiliko dira hainbat talde. /17

EDIFICIO
LABEKOA
Ondo jateko beste modu bat
Santa Lucia auzoa, z/g
20709 EZKIO-ITXASO (Gipuzkoa)
943 72 25 52 943 72 43 81
baminar@teleline.es

HERRIZ HERRI /4-5 • GUTUNAK /6 • IRITZIA /7 • SAILKATUAK /8 • KIROLA /10-11 • NON ZER /16-17 • BERRI-ZAKUA /19 • DENBORA-PASA /21 • TELEBISTA /22

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko otsailaren 2a

MARIJO DEOGRACIAS

# Delitugile gazteendako zentroa

## *Hamabi gazte daude Aramaioko egoitzan*

Urtarrilaren 13tik aurrera indarrean dago Adin Txikikoen Lege berria. Eta berria da, batez ere, adin penala aldatu egin delako, beste gauza batzuen artean. Lehen, 16 urte arteko adin txikikoak sartzen ziren adin penalaren barruan, baina orain dela hilabete erditik hona, 16tik 18ra pasatu da adin muga hori.

Ika-mika dezente sortu ditu lege horrek, batez ere Euskal Herrian. Izan ere, hainbat delitu Auzitegi Nazionalaren esku gelditzen dira. Hori dela eta, gure gazteen etorkizuna jokoan egon daiteke, "kale borroka" bezala ezagutzen den delitua eginez gero. Kasu horretan, Auzitegi Nazionalak epaituko du adin txikikoa, terrorismo delituaren irizpideekin.

Baina, gaurko erreportajea adin txikiko delitugileendako sortu den heziketa zentro baten gainekoa da. Ez da berria. Orain dela lau urte hasi ziren lanean. Aramaion dago, Mendixola baserrian, hain zuzen ere. Ez da telebistan ikustera ohituta gauden txikien berreziketa-zentro horietakoa. Gaur egun, hamabi gazte daude Mendixolako zentroan. Ez dago zaindaririk ateetan. Leihoetan hesiak daude, baina ez dago bestelako zainketa berezirik. Aramaiotik hamar bat minutura dago autoz, eta handik Aramaioko herria eta baserri auzoak, Anboto eta paraje ederrak ikusten dira. Hori guztia ikusita, gutxik pentsa dezakete barruan dauden gazteak han egotera behartuta daudenik.

Gehienez bi urtez egon behar izaten dira han, baina arduradunek adierazi digutenez, 6-9 hilabete egiten dituzte hantxe.

**HIRU ALDIKO EGONALDIA**

Epaileak Mendixolako baserrira bidaltzen dituen gazteek hiru aldiko egonaldia egiten dute. Lehenengo aldian, ikusketa aldian, gazteari jarraipena egingo zaio, hilabetez, bera ezagutzeko eta, bide batez, gaztea ohartarazteko han egotearen zergatiaz. Bigarren aldian, esku hartze aldian, lanik sendoena egiten da heziketari dagokionez. Gero, bergizarteratze aldia dator: gaztearen eta gizartearen arteko harremanaren aldia iritsiko da. Orduan, gazteak kalera irten daitezke: hasiera baten, begiraleekin, eta gero, euren kabuz. Otxandio aldera joaten dira Aramaiotik, baina ez hori bakarrik.

Hainbat kasutan, ikasketak eta lana ere Aramaion edo handik gertu egiten dituzte. Luis Miguel Uruñuelak adierazi digunez, "orain dela gutxi, eskolan ikastaro bat egiten aritu zen gazte bat izan genuen, eta Aramaioko tailer baten lanean ere bi gazte izan ditugu".

Horrez gain, Mendixolan ere hainbat tailer dituzte. "Ikasgela eta tailerra dira zutabe nagusienak: ariketak egiteko gela eta aroztegia. Gazteari pentsatzen irakasten zaio, eta egoera animikoa aldatzeko ekintza kulturalak egiten dituzte. Tutoretza orduak ere izaten dituzte", azaldu digu Luis Miguel Uruñuelak.





Ikasgela eta tailerra dira zentroaren zutabe nagusiak: ariketak egiteko gela eta aroztegia.

**BESTE ZENTRO BATZUK**

Aramaioko zentro horrez gain, beste hainbat zentro daude zabalik Euskal Herrian: ME Ramirez (Ortuellan), Andollu (Gasteiztik gertu), Sin Fronteras (Nafarroan), Lagun-Etxea (kaputxino nafarren zentroa) eta Haritz Berri (Ilundainen, Nafarroan). Gipuzkoan, Zumarragan hain zuzen ere, beste etxe bat irekitzekotan dira. Hasiera baten, Mendixolako arduradunek hartu behar zuten euren kargu, baina zentro horretan ezarri nahi ziren arauekin bat ez zetozela-eta, atzera egin zuten.

Mendixolako arduraK Berriztu heziketa elkarteak daramatza. Eusko Jaurlaritzak eskatuta hartu zuten horren ardura. Orain dela hamar urte sortu zen Berriztu elkartea, pedagogo, psikologo, gizarte laguntzaile eta beste hainbat lagunen artean.

**Gehienez bi urtez egon behar izaten dira zentroan, baina jeneralean, 6 eta 9 hilabete egiten dituzte hantxe.**

**Mendixolako zentroan gazteari pentsatzen irakasten zaio, eta egoera animikoa aldatzeko ekintza kulturalak egiten dituzte.**

**Zentro horren ardura Berriztu elkarteak dauka, pedagogo, psikologo, gizarte laguntzaile eta beste hainbat lagunen artean.**

# “Zentro horien helburua hezitzea da”

**Zein da heziketa zentro horien helburua?**
Adin txikikoak epe jakin bat igaro behar izaten du zentroan. Zentro horretara epaile batek aginduta bidali dute, eta badirudi askatasuna galtzeak deserrotu egiten duela gaztea. Edozelan ere, argi dago zentro horiek helburu bikoitza dutela: alde batetik, zigortzeko helburua dute; bestetik, bai adin txikikoen legearen, bai zentro hauen helburua ere, heziketa da. Izan ere, adin txikikoekin lan egiten dute eta gizarteak nahitaez hezi behar ditu adin txikikoak.

**Zein izaten da adin txikikoen jarrera zentro horietara eramaten dituztenean?**
Bitxia da oso adin txikikoei eragiten diena. Ziur asko, adin txikiko hauek erronka egiten ari zaizkie helduei eta agintariei, baina horrelako zentro baten sartzen direnean beldurra sentitzen dute eta itxita daudela ikusten dute. Ez dakite han egotean eurengan izango duen eragina zein izango den. Hori hasierako kolpea da, baina gero bigarren zatia dator; hau da, zentroak lortu behar du giza orientazioa, hezitzea eta laguntza osoa ematea gizabanakoari; hori da zailena.



**ANA DOMINGUEZ**

Aita Menni ospitaleko psikologoa

**“Zentroetan adin txikikoekin lan egiten dute, baina gizarteak nahitaez hezi behar ditu”**

**Zentroaren eta gizartearen arteko loturarik egon behar da?**
Zentro horietan egiten dituzten egonaldiak eten bat dira adin txikikoen bizitzan, baina lotura behar da zentroaren eta adin txikikoaren inguruaren artean. (...). Gizarte-baliabideez baliatu behar gara, prebentzio egitura sendoa lortzeko, hartara, adin txikikoek gizartearen babesa sentituko dute eta halako etena eduki dutenek etorkizun itxaropentsuagoa eduki ahal izango dute.

# “Kalte-ordaina gazteari ordaintzea dagokio”

**Zeintzuk dira aldaketa nagusienak?**
Batetik, orain arte, edozein delitu eginez gero, epaitegi arruntetan epaitzen ziren. Orain, 18 urte arte, adin txikikoen epaileak epaituko ditu.
Bestetik, terroristatzat hartzen direnez delituok, Auzitegi Nazioalarena izango da epaitzeko eskumena. Adin txikikoen Epaitegi Zentrala eratzea ere jasotzen da.
Azkenik, zigor sistema berezi bat, Zigor Kodetik aldenduz, kode horren erreferentzia batzuk gordetzen dituen arren.
Erantzukizun zibilaren aurrean eman den aldaketa ere oso gogorra da... eta zehazten joanez gero, gehiago aurkitzen dira: prozedura, delitugilearen eta biktimaren arteko adiskiditze aukerak, epaia betetzeko erakundeen eskumena...
Erantzukizun zibilaren kontua, era arruntean, hauxe litzateke: norbaiti, delitu bat egiterakoan, kalteren bat eragiten badiote, kalte-ordaina ordaintzea behartuta dago; gehienetan, diruz ordaindu beharko du. Lege horren arabera, kalte-ordain hori pagatzea gazteari (edo guraso edo zaintzaileei, kasuan kasuko) dagokio. Ez da lehen ezin zelako hola izan, baina oraingo sistema zuzenean gurasoen kaltean eratua dago oso-osorik. Asko idatzi da sistema edo modu berri honetaz, hain da harrigarria eta arazo-sortzaile eratuta dagoen modua! Baina, horretan sakontzea, garrantzitsua den arren, astuna litzateke irakurlearendako.



**NEKANE SAN MIGUEL**

Epailea

**“Delitugileari egindako kaltearen aldeak erakutsi behar zaizkio, bide horretatik jarrai ez dezan”**

**Zein helbururekin egin dira aldaketak?**
Edozein legeren helburu edo bete-asmoak jakiteko, legearen arrazoien azalpenera jo behar dugu, eta honetan, behin baino gehiagotan agertzen direnak hauexek dira: adin horretan delitugile den gaztea, oraindik hazten eta hezitzen dagoenez, berrezi, zuzendu eta bergizartератu behar da eta, bide batez, egin edo eragin dituen kalteen aldeak erakutsi behar zaizkio, bide horretatik jarrai ez dezan. Neurri eta zigor guztiak agertzerakoan, filosofia horrekin erakusten dira legean.

**Aramaioko Mendixola zentroaren esperientzia kontuan izanik, zer deritzezu horrelako zentroei?**
Holako zentroetan eta edozein neurri abian jartzerakoan oinarrizkoa errespetua da....gazte horrek beste gizakiak errespeta ditzan nahi eta espero badugu, guk gazte hori errespetatzen ikasi behar dugu... eta errespetuak mesfidantza baztertzetik hasi, eta aukerak eta tresnak erabiltzeko gai dela uste dugula adieraztetik abiatu behar duela uste dut... Zaila da, eta porrot asko gertatzen da gazte hauekin, baina hor ere, gaztea nolakoa den, baina guk zein erru edo okerr egin dugun ere ezin dugu baztertu...

## Bailaran, labur

### LANA
**Sindikatuek grebarako dei egin dute metalgintzako hitzarmena dela eta**

Debagoieneko ELA, LAB eta ESK sindikatuek metalgintzan greba egiteko dei egin zuten eguaztenean Mondragoen. Gaur, egubakoitza, eta datorren eguen eta egubakoitzean egingo dute greba, enpresarien elkartearekin (ADEGUI) dituzten negoziazioek aurrera egiten ez badute. 35 orduko lana-astea lortu artean, aurtengo urtean 40 ordu murriztea eskatzen dute sindikatuek. Horrez gain, soldatak sei puntu, hau da, KPI gehi bi puntu, igotzea ere eskatzen dute. Sindikatuetako ordezkariek eguaztenean prentsaurrekoan adierazi zutenez, negoziazio mahaia hiru bider batu da, azkena aste honetan bertan, eta patronalak egin duen azken eskaintza honako hau da: soldaten benetako igoera %2,8koa, eta tauletan, %4koa. Lanorduen murrizketari dagokionez, lau urtean 16 ordu, hau da, urtean lau ordu, murriztea. Sindikatuek ez dute eskaintza onartu, eta greba egitea erabaki dute. Lanuztearekin batera, hainbat manifestazio egingo dituzte: gaur, egubakoitza, eguerdian, manifestazioak egitekoak ziren Bergaran eta Eibarren. Horrez gain, auto-ilara ere bai. Langileen ordezkariek ez dute kooperatiba enpresetako behin-behineko langileei ere, mobilizazio hauekin bat egin dezaten. /ENEKO AZKARATE

### INGURUMENA
**Mondragoen Antoña ubidea bideratzearen aurka azaldu dira ekologistak**

Mondragoeko Musakola auzoan egin gura duten kirolgune berria dela eta, hainbat eskaera egin ditu Ekologistak Martxan taldeak. Bost puntu ditu talde ekologistak erakundeetara bidali duen idatziak. Honako hauek: lehenik, Antoña ubidea ez dadila estali; bigarrenik, ubidearen ertzak naturalak edo landaretza ahalbideratzen duten harri-lubetakoak izatea; hirugarrenik, aukera ematen duten hegaletan zuhaitz eta zuhaixkak sartzea; laugarrenik, ubidearen ertzeko haltzak eta zuhaixkaguneak ez ukitzea; eta azkenik, ubidea hemengo arrain-espeziekin birpopulatzea. /E. A.

### HEZKUNTZA
**Herri eskolek ingelesa erakusteko darabilten metodoa saritu dute**

Umeei ingelesa erakusteko erabiltzen duten metodoagatik, saria jaso dute Debagoieneko zortzi eskola publikok. 800.000 pezetako saria da eta Eusko Jaurlaritzak eman die. Metodo hori Pedagogia Aholkularitza Taldeak landu du eta orain dela bi urte hasi ziren erabiltzen bailarako ikastetxe publikoak, lau eta bost urteko umeekin, hain zuzen ere. Honako eskola hauek jaso dute saria: Bergarako San Martin, Antzuolako herri eskola, Arrasateko Erguin, Musakola eta San Andres, Oñatiko Errekalde, Eskoriatzako Luis Ezeiza eta Aretxabaletako Kurtzebarri./E. A.

### HERRIZAINTZA
**Bergarakoa izango da Ertzaintzaren komisaria bakarra Debagoienean**

Euskal Herriko ertzain etxeetan berregituraketa egiten dabil Barne Saila, eta gure bailarari dagokionez, erabaki du ez ditugula bi komisaria behar. Bakarrarekin nahikoa ei da. Aste Santurako Bergarako polizia etxe berria zabaltzeko asmoa dutenez, horixe izango da eskualdeko bakarra. Hala ere, gainerako herrietan ere izango dira ertzainak. Barne Saileko bozeramaile Juan Ramon Ruizek *Goienkaria*ri adierazi dioenez, “patruila kopuru bera izango da herrian, eta salaketaren bat edo antzekorik egin behar izanez gero, hori ere Mondragoeko polizia etxean egin beharko da”. Oñatin ere antzeko zerbitzua eskaintzen du Ertzaintzak. /UBANE MADERA

ARAMAIO | EUSKARA PLANA

# Amaia Aspe/ Euskara batzordeburua

## "Euskaraz ez dakitenen hizkuntza eskubideak bermatzen ditugu"

UBANE MADERA

**Aramaion euskararen erabilera normalizatzeko plana jarriko da abian. Herritarren %70etik gora euskaldunak diren udalerrietan legez bete beharko da plana. Datozen bi urteotan garatuko da. Amaia Asperekin izan gara, udaleko Euskara Saileko buruarekin, hain zuzen ere.**



**— Zein da helburua?**

— Aramaion euskararen erabilera handitzea. Hor barruan udala eta herria sartzen dira.

**— Hori lortzeko, zein pauso emango da?**

— Euskara planean hizkuntza irizpideak zehazten dira; bost arlotan daude banatuta:

Lehenengoa: udalak euskaraz lan egin beharko du; horretarako, udaleko langileak euskaraz lan egiteko gai izan behar dira.

Bigarrena: bai langileak eta baita enpresak kontratatzeko orduan ere, eman beharreko zerbitzua euskaraz emateko gaitasuna duela ziurtatuko da.

Hirugarrena: udalak, diru laguntzak emateko orduan, baldintza bat izango du: diru laguntza eskatu duenaren jardueretan euskararen presentzia bermatzea.

Laugarrena: udal baimenak ematerakoan ere kontuan hartuko da euskara. Adibidez, hirigintzako lan bat egingo duen enpresari eskatuko zaio lan hori iragartzen duen kartela euskaraz izatea.

Azkena: udalaren argitalpenetan eta ekitaldietan lehentasuna emango zaio euskarari.

Horrekin, zera lortuko da: batetik, eskolak egiten ari diren ahaleginak edo bailarako enpresa asko egiten ari direnak batu eta herrian euskaraz bizitzea.

**— Kalterik eragingo die euskal hiztunak ez direnei?**

— Plan horrek eta euskara plan guztiek bermatu egiten dituzte euskaraz ez dakitenen hizkuntza eskubideak. Norbaitek zerbait ulertzen ez badu, itzuli eta behar duen guztia azalduko zaio.

Hori bai, aipatu nahiko nuke orain erdal hiztunen eskubideak bermatuta daudela, baina ez, ordea, euskaldunonak. Hain justu, plana horretarako da: euskal hiztunen eskubideak bermatzeko.

Eta hori lortzeko, euskara babesteko, herritar guztien laguntza beharko dugu.

ARETXABALETA | SANTA AGEDA

# Aurtengo Santa Ageda mutilak dantzan egiteko prest

*Astelehenean, ohiturari jarraituz, 1982. urtean jaiotakoek dantza saio egingo dute plazan*

AMAGOIA LASAGABASTER

Otsailaren 5a egun handia izaten da atxabaltarrendako, eta, gehienbat, aurten kinto izango diren mutilendako. Izan ere, orduan hasten da herriko ohiturei jarraituz egiten den jaia. Aurten, 1982. urtean jaiotako 43 mutil ibiliko dira Santa Ageda batzen. Domekan baserriz baserri ibiliko dira gazteak, eta astelehenean herrian batuko dute dirua. Egun horretan, baina, kantuan bakarrik ez, dantzan ere egingo dute herriko plazan. Arratsaldeko 7etan banakoa, desafixua eta herriko neskei aurreskua dantzatuko diete. Gero, neskek eta mutilek, elkarrekin, txokolatea hartuko dute. Ohitura hau, aratuste egunera arte errepikatuko dute; aurten, hortaz, beste hiru domekatan.

ARRASATE | OSOKO BILKURA

# Gobernuko alderdien duintasun morala ezbaian jarri du PSE-EEk

*Herriko hedabideen lana ere kritikatu dute sozialistek*

UBANE MADERA

Mondragoeko PSE-EE taldeak eskertu egin ditu, prentsa-ohar baten bidez, Paco Garcia zinegotziak jasandako erasoaren ondoren jasotako elkartasun adierazpenak. Horrez gain, beste hiru puntutan zenbait gairen gaineko ikuspuntua ere azaldu du.



**Paco Garcia zinegotzi sozialistaren autoa, erasoaren ondoren.** UBANE MADERA

**AURREKONTUAK**

Udalak onartu duen aurrekontua baztertzailea dela uste du PSE-EEk, besteak beste, "mesede egiten dielako udal gobernuko taldeekin bat datozen taldeei".

**HERRIKO HEDABIDEAK**

Horrez gain, PSE-EEren iritziz, ideologia politiko konkretu bati erantzuten diogu herriko hedabideok, edo bestela, ideologia horren defendatzaileei beldur diegu. Horregatik, PSE-EEren iritzi eta kritikak zentsuratu egiten ditugula eta udal gobernua osatzen duten alderdien albisteak baino ez ditugula argitaratzen gaineratu du.

**EAUSKO ALKARTASUNAREN GAINEAN**

Bestalde, azken osoko bilkuran PSE-EEk mozio bat aurkeztu zuen. Kale erasoen ondorioz, seguruek bere gain hartzen ez dituzten kalte materialak udalak bere gain har ditzala eskatzen du mozio horretan. Mozioa ez zen onartu eta EAk prentsa-ohar baten bidez jakinarazi zuen ezezko botoa emateko arrazoiak bi zirela: bata, diru laguntza horiek Espainiako Estatuaren eta Eusko Jaurlaritzaren ardura direla. Eta bestea, PSE-EEk egindako eskaera baztertzailea zela, bakarrik udal karguak hartu zirelako kontuan.

Horren harira, PSE-EEk adierazi du alderdia ados zegoela proposamen horretan gainontzeko herritarrak sartzearekin, eta mozioa ez zela onartu EBk, EAk eta HBk kontrako botoa eman zutelako. Horrez gain, PSE-EEk gaineratu du herriko aurrekontuan "terroristei eta euren senideei laguntzeko milioiak onartzen direla, eta aldiz, ez direla onartu terrorismoak eragindako biktimendako laguntzak". Hori dela eta, udal gobernua osatzen duten alderdien duintasun morala ezbaian jarri du PSE-EEk.

**Zertzelada**

**PSE-EEren iritziz, ideologia politiko konkretu bati erantzuten diogu herriko hedabideok, edo bestela, ideologia horren defendatzaileei beldur diegu**

ESKORIATZA | EUSKAL TXOKOAREN INAUGURAZIOA



**Euskal txokoa jaioberri Eskoriatzan.** Joan den egubakoitzean zabaldu zituen ateak Eskoriatzako euskal txokoak. Hainbat lagun izan ziren Intxaurtxueta auzoan dagoen egoitzan, besteak beste, lokal berriko bezero izango direnak. Baina, aste honetan ere aurrera jarraitu du inaugurazio horren ajeak; izan ere, hiru hitzaldi egin dira estreinatu berri den lokalean: astelehenean Oñatiko Zelai Zabal jatetxeko sukaldari Alberto Elortzak gastronomia eta komunikabideak izan zituen mintzagai; martitzenean, bestalde, Juan Martin Elexpuru idazleak Badihardugu ekimenaren gainean egin zuen berba eta Mikel Irizarrek, Goiena kooperatibako zuzendariak, Goiena bera landu zuen, bailarako multimedia bezala. /IÑIGO BIAIN

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko otsailaren 2a

## Zabalik



ARANTZA OZAETA

### Kontaidazu ipuin bat

Aramaioko J.A.k zera esan zigun 81 urteek ematen zioten memoria lasaiaz: *"Nik gaztetan Anbotoko Señorie ikusi nen"*. Eta gu asaldatzen ginela, berak zirkinik ez. J.B.k sinisten du sugeak sartzen direla ezkaratzetara eta lotan uzten dituztela zahar eta gazte; eta umeari titia ematen dabilen emakumea ere bai. Eta orduan sugea jaisten zaiola lepotik behera andreari, eta goxo xurgatzen diola bularra. Andrea lo, umea lo eta sugea bapo. Umea alferrik galdu egingo da, seguru. Ez da txikiagoa altxorren gainean esaten dana: existitzen dira. Jakizue, irakurleok, "Etxango atxetan" marmin eder bat dagoela lurpean ezkutatuta urrezko txanponez beteta. Kontatu digute baita, ura gustatzen ez zitzaion gizona palangana batean ito zela diskuido batean.

Adi ibili behar da muskerrekin. Muskerra bizkarrean jarriz gero, larri behar duzu: zazpi herriko kanpaiak batera entzun ezik, ez zaitu askatuko. Baina, non daude zazpi herri eta zazpi kanpai denak behingoan entzuteko? Eta zergatik gelditzen da muskerra hor? Eta zer da "muskerra" kontestu horretan?: patua?, penak?...

Mendi bizkiak, eztizko errekak, hontzaren luma ederrak; gauza lauak, edonork ulertzekoak dira.

Orainhurrengo, Arrasateko azken errementariak aitortu zigun *"nik neuk hilgo nauen dragoie* –Arrasatekue, badakizue–. *Samurre da: preparau lantza luze-luze bat, eta ague zabalketan dauenien, ra!, sartu agotik. Erreko zan ziero"*.

Gaur, utz iezaiozu eguneroko arrazonamenduari eta kontaidazu ipuin bat.

## Gutunak

Ahalik eta iritzi gehienek izan dezaten tokia, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, GOIENKARIAk bere esku du horretarako eskubidea.

Zure iritzia helarazteko:
Barrenkalea 33, 20570 BERGARA
Telefonoa: 943 76 92 72
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: iritzia@goiena.com

Faxa

### Aparkalekuak Arrasateko erdialdean

Aparkalekuen arazoa Arrasaten agertu zen, berriz ere, urtarrilaren 17an GOITB-ko *Alkatearekin Berbetan* saioan. Ikusle batek erdialdeko aparkalekuen gabeziaz galdetu zion Xabier Zubizarreta Mondragoeko alkateari. Honek, lekua oinezkoendako irabazi behar zela argudiatuz eta kotxeen inbasioa aipatuz, ez zela apenas aparkaleku gehiagorako lekurik egokituko erantzun zion.

Ez da lehenengoko aldia argudio hau entzuten dugula. Eta horrela esanda, oso polita eta progresista gelditzen da. Egia da kotxeak gero eta leku gehiago hartzen duela herri eta hirietan, oinezkoak batzuetan baztertuta gelditzen direla eta hori guztia (Erdialdekoa baino exenplu txarragoak badaude, Mugarriko pasagunea, kasu).

Gero, alkateak Garibain lur azpiko aparkalekuak egingo direla aipatu zuen. Baina, arazoa ez da hori, arazoa da non aparkatuko dugun erdialdean bizi garenok. Gauza bat da ordu pare batentzako kotxea lur azpira sartzea eta beste bat gau osorako, edo denbora gehiagorako, kotxea non laga. Orain dela gutxi arte, urte osoko alokairuak egiteko aukera zegoen Udaleko Roneoko lur azpikoan, 60.000 pezetan, baina hori ere kendu egin dute. Horrelako formularen bat ipiniko dute martxan, berriz ere, Garibain? Noiz, 10 urte barru?

Bitartean, erdialdean, eta bereziki Alde Zaharrean, bizi garenok ez daukagu non aparkatu. Gero eta leku gehiago kentzen da. Laster badirudi normaltzat jo beharko dugula kotxea etxetik bi kilometrora aparkatzea. Eta hori gertatzen da etxe zaharrak direlako eta egin ziren garaian ez zelako aurreikusten kotxeentzako lekua uzteko beharra, auzo berrietan gertatzen den bezala. Azkenean, zein da gure irtenbide bakarra, denok garaje bana erostea? Horrela dirudi.

Oharra: Ez dakit oraindik zein izango den Udalaren asmoa, baina Zerrajera parean, ibaiaren ertzetik eta Kontzezinotik hasita Mondragon Hoteleraino leku eder bat irabaz daiteke kotxeak aparkatzeko. Eta oinezkoei inolako trabarik egin barik, espaloia ere badago eta.

J. L. AZKARATE
Arrasate

### Adarretatik helduz

Behi eroen gaitzak sortu duen eztanda izugarria izan da Europa osoan eta, zer esanik ez, Euskadiko okela sektorearentzat, bai ekoizle bai kontsumitzaileentzat ere, geure inguruko elkarte autonomoetan (Galizia, Gaztela-Leon eta Asturias) sortutako kasuekin.

Hori dela eta, okela ekoizleoi behi eroen gaitzek bi gauza erakutsi dizkigu: lehenik, gure azienderen elikadura zein garrantzitsua den bai animalientzat baina, baita ere, geure kontsumitzaileentzat ere. Bestetik, nabarmen geratu da komunikabideen indarra eta kontsumitzaileen mugimenduek duten itzala. Gertatutakoak gertatu, nekazaritzako arduradunen artean bada uste duenik iskanbilaren atzean Europako Nekazal Politika goitik behera aldatu nahi dutenak daudela, eta zenbait erreakzio ikusita, egia esanda, zer pentsa badago.

Hala ere, gaur egun, baserritarron aldetik ez da nahikoa behiak gizentzea eta gero, beste ezer egin gabe akabatzea, kontsumitzaileek behia ondo eta naturalki gizendu den ziurtagiri eta bermeak eskatzen baitizkigute, eta honen aurrean, aitortu beharrean gaude Labela bezalako tresnak sekulako balioa dutela, kontsumitzaileei konfiantza ematekotan behintzat.

Ez da nahikoa gauzak ondo egitea; kontsumitzailea ondo informatu eta lasaituko duen bermeak ematea ezinbesteko baldintza dugu gaur egun. Behi eroen gaitzak ere argi eta garbi plazaratu du kontsumitzaileen joko bikoitza. Alde batetik, urte osoan soilik prezioan oinarrituz erosketak eginaz, eta, bestetik, horrelako krisialdiak sortutakoan, punta batetik bestera pasaz, okela ez kontsumitzera helduz.

Egoera lasaia denean eta elikadura inguruko inongo krisialdirik ez denean, kontsumitzaileak lasai asko egiten du bere erosketa, okelaren kalitatean, jatorrian eta animalien elikaduran batere erreparatu gabe, azken batean, elikadura aurretik beste lehentasun batzuk dituztelako (bidaiak, etxetik kanpo afaltzea, arropa e.a.) eta maiz entzuten dugun bezala "denetarako ez da iristen".

Aldiz, elikagaien inguruan krisialdia sortu eta komunikabideetan berri deigarriak ugaritzen hasten direnean, kontsumitzailea berehala beldurtzen da eta bere kontsumoa beste produktu batzuetara bideratzen du, ohartu gabe, jarrera honekin bere lanak ondo egiten dituen baserritarra kaltetzen ari dela eta, hain zuzen ere, okela kontsumitzeko unerik egokiena indartzen diren krisialdi uneok direla.

Espero dezagun, azkenik, kontsumitzaileak une honetan elikadurarekiko azaltzen duen ardura eta begirunea urte osoan ere izango duela, bere buruaren eta baserritarren onerako izango baita.

MIKEL ARTEAGA
GIPUZKOAKO ENBAKO LEHENDAKARIA
Arrasate

### Euskalgintzari erasoa

Joan zen astean Zabaltzen-en polizia nazionala sartu zen Garzon epailearen aginduz dokumentazio eskaera egitera. Gertakizun horren aurrean Zabaltzen, Euskal Kulturgintza eta Elkarlanerako langileok gure elkartasuna adierazi nahi diogu enpresari.

Azken hilabeteotan euskalgintzan dihardute beste erakunde batzuekin gertatu bezala, honako hau ere euskal kultura eta euskalgintza desprestigiatzeko kanpainaren harian dakusagu langileok.

ZABALTZEN, EUSKAL KULTURGINTZA
ETA ELKARLANERAKO LANGILEOK

ZUZENKETA. Joan zen asteko alean, Xabier Zubizarretari egindako elkarrizketan, Gipuzkoako Batzarretako kide eta Gasteizen Legebiltzarkidea zela adierazi genuen. Ez da zuzena: gaur egun, Arrasateko alkatea izateaz gain, ez dauka beste kargurik erakunde publikoetan.

## Olatz eta Patxi

MIKEL ARROIABE



# Eztabaida

Joan den astean jarri zen indarrean Atzerritarren Legea. PPk Espainiako kongresuan duen erabateko gehiengoarekin eta CIUren eta Coalicion Canariaren laguntzarekin onartu da lege hori. Afrika, Hego Amerika eta Europako ekialdetik, batez ere, lan eske datozen atzerritarren egoera normalizatu nahi dute lege horren bidez. Baina, gizabanakoen oinarrizko eskubideak errespetatzen ez dituela salatu dute hainbat giza erakunde, sindikatu eta indar politikok. Euren egoera normalizatu barik duten 30.000 atzerritar inguru bota ditzake Espainiako gobernuak.

## Zelan ikusten duzu Atzerritarren Legearen gaineko PPren erreforma?

### *Ikuspuntu polizialetik egindako legea*



ANDRES DIEZ
IU/EBko zuzendaritzako kidea

Azken hauteskundeetan PPk erabateko gehiengoa lortu bezain laster, indarrean jarri berria zen Atzerritarren Legearen emaitzak zeintzuk izango ziren oraindik ez genekiela, legearen aurkako kanpainari ekin zioten popularrek, eta lege hori aldatzeko lanean hasi ziren.

Legea aldatzeko ustezko beharra adierazpen arduragabeetan oinarritu dute PPkoek, eta horien artean ohorezko tokia merezi dute Barne Ministroarenak, besteak beste, honako hauek: "Etorkinena izango da espainiarren elkarbizitzaren arazorik larriena" edo "Laga ditzagun asmo zintzoak alde batera". Etorkinekiko duten jarreraren deklarazioen printzipioa.

Adierazpenok PPk etorkinekin darabilen politikaren adierazle garbia dira. Legeria anakroniko eta ikuspuntu polizialetan oinarrituta dagoen politika, hain zuzen ere. Argi eta garbi esan behar da, bestalde, legearen erreforma horrek egoera arautu gabean bizi diren etorkinen fabrika bihurtu duela, eta 72 ordutan kanporatzeko mehatxupean bizitzera behartu ditu atzerritarrak, erroldatuta egon edo lana izan arren.

Inmigrazioa txarra dela eta etorkinak arriskutsuak direla behin eta berriro errepikatzen ari da gobernua. Eta, ondorioz, talde hauen aurkako iritzi eta jarrerak zabalduz doaz. Errespetuan eta aniztasunean oinarritutako politika integratzaile batek bultzatu beharko luke kontrakoa.

### *Legearen erreformarekin, etorkinak susmopean*



AGUSTIN UNZURRUNZAGA
SOS Arrazakeria

Aurtengo urtarrilaren 23an Atzerritarren Lege berri bat sartu da indarrean, hirugarrena Estatu espainoleko historia modernoan, Partidu Popularraren gehiengo absolutuari esker.

Atzerritarren Lege berri honek susmopean jartzen ditu etorkin guztiak, batez ere euren paperekin arazoak dituztenak. Azken horiei oinarrizko giza eskubideak ukatzen dizkiete, hala nola, manifestazioetan esku hartzeko eskubidea, edo sindikatu bateko partaide izatekoa, edo greba egiteko eskubidea.

Lege berri horrek etorkin ez-komunitarioen sarrera galaraziko du, Giza Eskubideen 13. artikulua behin eta berriro urratuz. Egoera ez-erregularretik egoera erregularrera pasatzea oztopatu egingo du; zigorrak gogortu eta kanporaketak erraztuko dituen bitartean, etorkinen aurka aritzen den poliziari baliabide guztiak ematen dizkio kanporaketak gauzatzeko, urgentziazko prozedurak erabiliz.

Lege polizial baten aurrean gaude. Migrazio modernoen gaia, oso korapilotsua eta adar asko dituen gaia (giza eskubideak, ekonomia, esku-lanaren merkatua, kultura, elkarbizitza, identitateak) segurtasunaren eta eskubideen murrizketaren menpe jartzen du.

Lege horrek etorkinen bazterketa eta sufrimendua areagotu egingo du, baina ez du euren etorrera galaraziko. Lege horrek ez du etorkinen integrazio sozial eta politikoa bultzatuko, hori ez baita bere helburua.

## Egunkarietatik jasoa

### Miseriatik ihesi

Historian zehar Espainia ez da ezaguna abegitsu eta tolerantea izateagatik. Juduen kontrako erasoek une gorena izan zuten 1492ko erbesteratzearekin, baina ez zen hor geratu garbiketa etnikoaren politika. Hurrengo mendean, batez ere Alpujarretako matxinadaren ondoren, Granadako milaka morisko bortxaz barreiatu zituzten. Zenbaitzuk Tutera ingurura heldu ziren eta Logroñoko Inkisizioaren Auzitegiak lagun ugari auzipetu zituen Mahomaren fedeari atxikirik jarraitzeagatik. Azkenik, 1610ean moriskoen kanporaketa agindu zuten: kalkulu zuhurren arabera 500.000 lagunek — biztanleriaren % 6tik gora— hartu behar izan zuten atzerrirako bidea, batez ere egungo Aljeria, Tunisia eta Marokora. Garaiko kronista batek, Salazar de Mendozak, ijitoekin berdin egitea eskatu zuen. Moriskoek euren etxeak utzi behar izan zituzten, baina gainera debekatu zieten urrea, zilarra edo dirua eramatea, eta aberastasun horiek ezkutatu zituztelako ospea zabaldu zen jendearen artean.

Gorbeiako Mairulegorretako haitzuloan urrea omen dago lurperatua, baina, Aita Barandiaranek idatzi zuenez, inguruko jendeak lan eta lan jardun arren, ez zuen ustezko altxorraren arrastorik idoro.

ROBERTO GONZALEZ DE VIÑASPE
Euskaldunon Egunkaria /2001-01-02

**DATORREN ASTEKO EZTABAIDAGAIA** Iritzia emateko: iritzia@goiena.com

## *Txuletari hezurra kentzea lagungarria da arazoa konpontzeko?*

# Gora eta Behera

**PINOCHET AUZIPERATUA**

Oraingo astean ikusi berri dugun Pinocheten auziperatzea. Diktadore bat auziperatzea beti da berri ona. Ez dakit legea irabazle irteten den, baina diktadore zen sasoiari aurre egitea pozik egotekoa da. Ematen du nonbaiten justiziaz jokatzerik badagoela.

**'BEHI ERO'EN KONTUA**

Osasunean eragina duen gai bat: 'Behi eroak'. Kontu hau guztia zelan eraman den ez dut batere gustuko. Jakinean kaltegarria zela, bai okela eta baita pentsua ere saltzen jarraitu dute beldur barik.



IÑAKI URGOITIA
Elgetako medikua

# Koplak

### *Azterketak*

Urtero gisa iritsi dira
otsaileko azterketak,
alperrekoak geroko negar
ta oraingo berriketak.

Zapatu gauez gautxori eta
domekero buruan min,
astegunean ganora falta
ta asteburuan ezin.

Azken orduan ikasi nahian
jartzen dugun ahalegina,
liburua ireki orduko
sortzen da ixteko grina.

Kanutotxo bat balkoian eta
bost minutuz telebista,
ikasi gabe ibili ohi da
honela zenbait artista.

"Aspertzen nago, hau da txorrada
hauxe bai tontokeria",
nota bikoitza atera nahian
ikasi arren erdia.

Lau hilabete nola joan diran
ezer egin gabe pozik,
justiziarik ez da komeni
zorterik onena baizik.

IKER AGIRRE

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA: Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA: Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal
SAILETAKO ARDURADUNAK: Marijo Deogracias (Kultura, Denborapasa, Telebista), Edu Mendibil (Kirola, Non Zer), Aintzane Irizar (Berri-Zakua), Goio Arana (Diseinua), Gotzon Arzelus (Publizitatea)
PUBLIZITATEA: Uxue Zabaleta, Arantzazu Lagunilla, Nerea Zallo
ADMINISTRAZIOA: Agurtzane Gaintzarain
PRODUKZIOA: Iban Arantzabal
HARPIDETZA ETA BANAKETA: Aitziber Langaran
MAKETAZIOA: Goio Arana, Maddi Trutxuelo, Iñaki Iturbe
TESTUEN ZUZENKETA: Sergio Azkarate
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA: Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA: Mikel Irizar

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Jon Anduezak (Mondragoe, 1966) bere burua, orain behintzat, gidoilari moduan ikusten du. Idazle izatearena nahiko ahaztuta dauka eta lizentziaduna baino askoz gehiago ez ei da Kazetaritzan. *Bertatik bertara* telebista saioan ikusten dugu sarri, baina aurrez film labur pare bat eginak ditu, eta baita sari mordoxka irabazi ere.

IBAN ARANTZABAL


IBAN ARANTZABAL

# *Jon Andueza*

KAZETARI ETA GIDOILARIA

## "Zinemaren inguruko saio bat egingo nuke gustura. Etorkizuneko apustua horren gainekoa da"

SAHARAKO ESPERIENTZIA

**"Saharakoa izugarria izan da, aberasgarria. Mundua ez da hemendiko aldean bizi dugun modukoa, eta hori ikasi dut"**

GOIENA KOOPERATIBA

**"Itxura ona du eta sortzeak bakarrik berekin harrera ona izatea badakar ere, goiari eutsi behar zaio; hori da gaitzena"**

**Kazetari, idazle, gidoilari...**

Orain, gidoiak egiten dihardut. Dokumental bat dut esku artean neuk idatzitakoa, eta orain muntatzen ari gara. Hortik bizi naiz orain, eta telebista aurrerako lanak ere aterako dira; beti gustatu izan zaizkit horrelako lanak eta oso gustura egiten ditut gisa horretakoak. Idazle izatearena, ostera, nahiko ahaztuta daukat.

**Saharan aritu zara dokumental baterako irudiak hartzen. Bideoan ala zineman?**

Teorian, zinemarako. Asmoa hori zen eta filmaketa ere zineman egin da. Orain, ekoizlearen lana da hori guztia bideratzea. Dokumentala da eta laster egongo da ikusteko moduan. Ormaiztegiko andre baten historia kontatzen da dokumentalean: emakume hori kanpamentuetako denda baten egon zen bizitzen, eta beraren eguneroko bizitza kontatzen da, bai Euskal Herrian bizi zenean eta baita Saharara joandakoan ere. Grabaketetan-eta Orio Produkzioak eta K2000 produktorak daude tartean.

**Saharatik txundituta etorri zinen.**

Bai, izugarria izan da esperientzia. Mundua zeharkatu gabe, paisaia, eguraldia, bizimodua, jendea... Denondako da aberasgarri horrelako bidaia egitea. Denok egin beharko genuke horrelako bidaia bat ikasteko. Mundua ez da guk bizi duguna bakarrik, eta horretaz Saharan konturatzen zara. Sahararrak 25 urte dela bizi dira kanpamentu baten, erbestean, Marokok euren herria okupatua dizutelako. Egoera oso gogorra da eta horrelako egoera baten bizi den jendearekin bizitzeakgauza asko erakusten dizkizu nahiz eta hona etorri eta bost egunean gizartearen, hemengo gizartearen, erritmoan berriro sartu.

**Duela aste batzuk albiste izan zara, Galizian sari bat eman dizutelako.**

Donostiako lagun batek eta biok egindako proiektua da. Film labur bat egin gura genuen, baina gutxinaka-gutxinaka telebistarako moduko 13 ataletako telesailtxo bat egin genuen. Galizian gustatu egin zitzaien eta saria irabazi genuen. Saria irabazi bai, baina gure herrian ETBri ez zitzaion asko gustatu eta alde horretatik nahiko penatuta nago.

**Prentsan eta telebistan aritu zara. Non gusturago?**

Telebistan. Geroago eta gusturago nago, gainera. Ikus-entzunezkoa beti gustatu izan zait, eta gaur egun, askoz ere gehiago. Batean, idatzi eta idatzi egitea da, eta telebistak euskarri gehiago ditu. Azken baten, gidoiak eta gainerakoak ere idatzi beharra dago, baina gero gidoi horri eranskin asko egiten zaizkio: irudiak, musika... hori oso aberasgarria da.

***Bertatik bertaran* kolaboratzaile ari zara, baina kamera aurrean ikusiko zaitugu berriro programaren bat aurkezten?**

Bai. Saio berri baten izango da, seguruenik, eta laster sortuko bada ere, oraindik ez dago lotuta eta... Badira telebistan beti egongo direnak, esaterako, Ramon Garcia eta horrelakoak, beste batzuek, berriz, ziklikoago funtzionatzen dugu. Batzuetan egoten gara, joan, etorri, berriro agertu...

**Zein saio egingo zenuke gustura?**

Lehen, beti erantzuten nuen kirolaren gaineko zerbait egingo nuela, ez hemen ulertzen den garrantziarekin, baina bai bestelako modu baten. Gaur, ostera, gusturago nengoke zinemarekin zerikusi a duen zerbaitetan. Etorkizunean ere apustua horren ingurukoa izango da.

**Telebistaz dihardugula, merezi du gaurko telebistak? Ikusten duzu telebista? Zer ikusten duzu?**

Gaurko telebista, ez. Egin ditudan gauza batzuk ere ez zaizkit larregi gustatu, baina datozen moduan hartu behar dira. Gaur egun, etxean kirolen zuzeneko emanaldiak eta pelikulak ikusten ditugu, batik bat.

**Anne Igartibururekin aritu zinen ATBn eta gero ETBn ere bai. Baduzu harremanik?**

Gaur egun, oso harrema gutxi dut. Sasoi hartan, harreman handia izan nuen, gerora ere bai. Madrilera joan zeneko lehen egunetan ere bai... Hala ere, edozein egunetan Annerekin topo eginez gero, harremana lehen zegoen lekuan egongo litzateke, arazo barik, lagun onak moduan. Gainera, Mondragoe moduko leku txiki baten modu umilean hasitako harremanak beti ematen dute elkartasun berezia. Annek zortea izan du, lan hori gura zuen eta. Nik neure buruarendako ez nuke gura lan hori, baina bera gustura dabilenez, aurrera.

**Herri komunikabideetan hasi zinen, baina urteak dira utzi zenituela. Hala ere, gertutik jarraitzen dituzu?**

Gertutik-edo. Lagun asko ditut, eta ez da noizean behin irakurtzen edo ikusten dudala bakarrik, lagunak ditut hor inguruan eta beti jarraitzen dut haien lana.

**Horren haritik, badakizu Debagoieneko komunikabide eta euskara elkarteak elkarlanean ari direla egitasmo berriei aurre egiteko. Zein iritzi daukazu Goienaren gainean?**

Nik uste dut proiektua, berez, eta ideia onak direla. Dena dela, bidea jarraitzea izango da zaila. Kontua ez da hastea; bidean dauden oztopoak eta bide horri zelan egin aurre izango da zaila behin berritasuna galtzen duenean. Zelan jarraitu produktu ona eskaintzen? Hori da gakoa. Oso itxura ona du eta sortzeak bakarrik harrera ona izatea badakar ere, goiari eutsi behar zaio eta hori da nekezena.

**Eta eskualde osorako telebistaren eta Goienkariaren gainean?**

Nire ustez, produktu onak dira. Aurrerapausoa da. Hasieran, norberak herriko aldizkaria, herriko irratia eta herriko telebista zituen. Mundua geroago eta handiagoa da eta telebista handiak ere lehen baino zabalagoak dira. Etorkizun hobea ikusten diot bailarako informazioa lantzen ari den produktu bati tokikoan tokikoari baino. Arrazoia sinplea da: lehenengo urtean konta zenezake Udalaitz eguna dela, bigarren urtean ere bai, hirugarrenean ere kontu bera eta laugarrenerako ez daukazu aldizkaria ireki beharrik, badakizu-eta Udalaitz eguna etorriko dela orrialde horietan. Elgetako alkateak aurrekoan esan zuen gure inguruan 200.000 lagun bizi direla, eta horiek lagun asko dira. Gauza asko gertatzen zaie lagun horiei eta ez nuke begibistatik galduko beste herri batzuetara ere zabaltzea. Badakit Debagoienerako apustua ere hor dabilela, osatu ezinik, baina Durangora, Elorriora, Eibarrera zabaltzea zergatik ez? Ente indartsua osatu beharko genuke. Kontu asko lotu behar dira, baina posible da.

**Elgetan bizi zara. Zer dela eta? Zer moduz Elgetan?**

Ingeniaria ez naizenez eta gura beste diru irabazten ez dudanez, ezin dut gure herrian etxerik erosi. Hala izanda, aukeretan onena Elgeta iruditu zitzaidan, Mondragoetik nahiko gertu dagoelako eta Mondragoeren aldean herri merkea delako. Elgetara etorri nintzenean banuen beldur pixka bat, baina baita betiko herritik bakarrik 12 kilometrora geundelako lasaitasuna ere. Orain, jendea ezagutzen dut, giroan sartzen zara eta alde horretatik oso herri polita da; merezi duen herria da eta oso gustura gaude. Horren froga da Mondragoera geroago eta gutxiago joaten naizela.

**Noiz espero duzu Gorka Zubiaurre lanean ikustea? Noizko film luze hori pantailan?**

Badaude hainbat proiektu horren gainean. Toki baten baino gehiagotan jo dut atea, eta toki batzuetan, nahiz eta nire proiektua osoki ez onartu, ideia behintzat hartu dute eta *fusilada* txiki bat egin eta gero, baliteke laster baten aurrera egitea. Gorkak merezi du, aurrera egingo dugu.

# Debagoieneko triatloia ekainaren 9an

Arrasateko Triatloi Taldeak antolatuta, Debagoieneko I. triatloia jokatuko da datorren ekainaren 9an. Igeriketa, txirrindularitza eta lasterka egitea tartekatzen dituen kirol hau olinpiarra izan zen, aurreneko aldiz, joan den urteko Sidneyko Joko Olinpiarretan. Mondragoekoa herri proba izatea gura dute antolatzaileek, eta horretarako, bailaran kirol hori egiten duten guztiei proban esku hartzeko gonbidapena egiten diete. Euskadiko triatloi zirkuituko lehen proba izango da. Gero, Zarautz (ekainaren 16an), Lekeitio (ekainaren 23an), Donostia (uztailaren 1ean), Barakaldo (uztailaren 7an), Gasteiz (uztailaren 21ean) eta Beasaingo probak (uztailaren 28an) etorriko dira.

Arrasateko Triatloi Taldeko presidente Jose Mari Barrenaren hitzetan, "aspalditik genuen asmoa bailaran triatloia antolatzeko. Joan den azaroan baimena eman ziguten eta proba antolatzen hasi ginen. Horrelako proba bat antolatzeak lan handia eskatzen du, baina ilusioz ari gara. Badakigu geroago eta zaletasun handiagoa dagoela triatloia egiteko. Ez da jendeak uste duen bezain kirol gogorra; inguruko triatloizale guztiak egun horretan gurekin izatea nahi genuke". Triatloiak milioi bat pezeta inguruko aurrekontua dauka eta antolatzaileak babesleak lortzeko ahaleginetan ari dira egunotan. Partaideek 2.500 pezetako izen-ematea ordaindu beharko dute proban esku hartzeko. Oraingoz, plaza mugatuak izango dira, eta, gehienez, 200 lagun izango dira Urkuluko irteeran.

Mondragoekoaz gain, bailaran badira beste bi triatloi talde, bata Oñatin eta bestea Bergaran.

EDU MENDIBIL

## Igerian 1,5 Km

Triatloia igeriketa probarekin hasten da. Antolatzaileek kilometro eta erdiko ibilbidea prestatu dute Urkuluko urtegian. Hantxe igeri egitea debekatuta dago, baina antolatzaileek Diputazioaren baimena lortu dute. Ekainaren hasieran ura oraindik ere hotz (15ºC gutxi gorabehera) egongo dela kontuan hartuz, neoprenozko trajea beharrezkoa izango da. Traje horiek nahiko garestiak dira (30.000 pezeta inguru); horregatik, antolatzaileek trajeak alokatuko dituzte, ziurrenik.

Urkulun dagoen faunari kalterik ez egitea izan da kezka nagusienetako bat.



## Bizikletan 40 Km

Uretatik irten ondoren, triatloizaleek 40 kilometroko ibilbideari aurre egin beharko diote bizikletan. Urkulun egongo diren boxetan aldatu, bizikleta hartu eta honako ibilbidea bete beharko dute: Urkulu-Mondragoe-Epele- Kanpanzar-Mondragoe-Aramaio-Untzilla-Aretxabaleta-Mondragoe. Garibai kalean egongo da helmuga. Antolatzaileen arabera, gorabehera asko ditu txirrindularitza probak, baina ia ezinezkoa da inguruan aldapa bariko proba egitea.



## Lasterkan 10 Km

Askoren ustez, triatloiaren azken proba da gogorrena, lasterka egitea, alegia. Mondragoen, herri barruan, bost kilometroko ibilbidea prestatuko dute. Partaideek bi bira eman beharko dizkiote zirkuituari: Garibai, Mondragoeko ospitalea, Eroski, Mojategi, Santa Marina, Monterron eta berriro ere garibai kalean amaitzeko.

Egin beharreko hiru probetan erresistentzia erakutsi beharko dute partaideek. Antolatzaileen arabera, aurreneko postuetan heltzen diren triatloizaleek bi ordu inguruko denbora egingo dute. Dena dela, ez dute inolako denbora mugarik jarriko, herri proba izatea gura dute eta.




ROUTER COMUNICACIONES, S.L.

**Bost arrazoirengatik erosi behar duzu Euskalteleko saltoki globaletan:**

- Saltzeko orduan arintasuna
- Telefono kostuetan aurreztea*
- Enpresa-merkatuko alderdi garrantzitsuenen informazioa
- Bezeroekin harreman hobea
- Sakelako telefonoen konponketa bideratzeko zerbitzua

**ENPRESA ZERBITZUA:**

- Telefono digitalen telefonogunea
- Telefonia mobila
- Internet
- Telefono finkoak 1050
- Hari digital bariko telefonoak (DECT)

**ZERBITZU PARTIKULARRAK:**

- Aurreordaindutako Euskaltel pack-ak
- Internet
- Telefono finkoak 1050

**ARRASATE**
Maalako errebala, 8-behea
Atzekoa (Garibai)
Tel.: 943 71 27 81
Faxa: 943 71 17 85

**EIBAR**
Errebal, 15
Tel.: 943 70 03 69
Faxa: 943 20 63 79

**SALTOKI GLOBALA:**

Euskaltel

*2000ko urriko batez besteko kontsumo gordinaren arabera. EAOko tarifekiko %11raino aurrezpena.

*Podiuma*

# Axen Garitano | TXAKUR LEREN PIRENA LASTERKETAN |

**Axen Garitano bergararra (41 urte) astebukaeran amaituko den txakur leren Pirena lasterketan esku hartzen ari da. Zazpigarren urtea du Pirenan, eta martitzenean berarekin berba egin genuen, Font Romeun zegoela. Ezker hankako abduktorean muskulu-haustura izan arren, sailkapen orokorrean hamaikagarren zen.**



Axen Garitanok zazpigarren aldiz esku hartu du Pirenan.

**Zer moduz orain arte jokatutako etapetan?**

Uste baino hobeto nabil, proba bukatzeko egun gutxi falta direnean [Pirena zapatuan, hilak 3, bukatuko da] 11. postuan nago eta. Dena dela, ezker hankako abduktorean izandako lesioak gauzak asko zaildu dizkit. Hirugarren etapan, Baqueiran, abduktorea hautsi nuen. Ordutik hona, gaizki ibili naiz, ezin dut-eta leratik jaitsi eta lasterkarik egin; lasterketako medikuak injekzioa jartzen dit egunero. Pixkanaka, hobera egin dut, eta ea proba amaitzerik dudan... Oso zaila izango da sailkapenean aurrera egitea, baina hamaikagarren postuari eustea posible ikusten dut. Orain arte lortutako emaitzarik onena izango litzateke, 1995ean 16. egin nuen eta.

**Pirenako beteranoetako bat zaitugu.**

Bai, azken zazpi urteetan etorri izan naiz, baina hemen maila altuko jendea dago: belgikarrak, italiarrak, frantziarrak, kanadarrak, argentinarrak..., hau da, munduko onenetarikoak. Guztira, 64 partaide gara. Proba gogorra da, 500 kilometro egingo ditugu eta. Lehen postuan emakume norvegiar bat dago; nekeza da hamaikagarren postu hori hobetzea, nire aurrean daudenek 12 txakur eroaten dituztelako eta ni, berriz, zortzirekin nabilelako. Azken bi etapetan zazpi atera ditut.

**Zein arrazako txakurrak eroan dituzu?**

Alaskanoak, lasterragoak direlako. Iaz 14 txakur ekarri nituen, guztiak Siberian Husky arrazakoak. Aurten, aldatzea erabaki dut. Ibilbide luzeko probetarako Huskyak aproposak dira, baina partaide gehienek Alaskanoak ekartzen dituzte. Oso txakur onak dira. Aurten ere hamalau ekarri ditut. Andoni Azpillagak zazpi utzi dizkit; gainerakoak nireak dira. Txakur gazteak dira guztiak, urte eta erdikoak, baina, esan bezala, lesioagatik, zortzirekin nabil.

> **"Oso zaila izango da sailkapenean aurrera egitea, baina lesionatuta egon arren, 11. postuari eustea posible ikusten dut"**

> **"Orain arteko aldietan Siberian Husky txakurrak ekarri ditut, baina aurten Alaskanoekin nabil, lasterragoak direlako"**

**Zein izan da etapa baten lortutako emaitzarik onena?**

Atzokoan [astelehena] zortzigarren heldu nintzen. Font Romeun hasi eta bukatzen zen etapa, eta eguraldi kaskarra zela-eta, 11 kilometroko ibilbidea bete behar izan genuen. Bestalde, Tramacastilloko atariko etapan podiuma egin nuen, Espainiako Estatuko partaideen artean hirugarren izan nintzen eta.

**Zelako eguraldia izan duzue orain arte?**

Oso txarra. Joan den urtean ibilbide zati handi bat belarretan egin behar izan genuen, eta zenbait etapatan ibilbidea aldatu behar izan zuten antolatzaileek, elurrik ez zegoen eta. Aurten, aldiz, elur asko eta elur bustia izan dugu etapa gehienetan eta gaur, martitzena, etapako ibilbidea moztu behar izan dute, sekulako haize zakarra dagoelako. Hasiera baten 25 kilometroko etapa zena 14koa izango da.

**Zer nolako prestaketa egin duzu?**

Joan den urteko Pirenan meniskoa hautsi nuen, eta oraindik ez nago guztiz errekuperatuta. Nahiko entrenamendu lasaiak egin ditut. Bizikletan errodilloa egin dut eta txakurrekin Bergarako trenbidean eta Azpeitia aldean ibili naiz entrenatzen. Ez naiz elurretan entrenatu.

**Elurretan ala belarretan gusturago?**

Elurretan ibiltzea gozamena da. Bestalde, Pirenako antolatzaileei 10 bat eman behar zaie, lasterketa gero eta hobea delako.

EDU MENDIBIL

ATZOKO TXAPELDUNAK

## Santi Aiastui
## Txirrindularia




Aiastui Gipuzkoako txapeldun izan zeneko mailotarekin.

**Afizionatuetan, erlojukontrako Gipuzkoako txapelduna izan zen 1970ean eta 1972an.**

**Profesionaletan, Kas taldean aritu zen bi urtez**

Urretxuarra jaiotzez, mutikotan etorri zen Antzuolara, Olamendi baserrira, hain zuzen ere. Etxean ez zuten begi onez ikusten txirrindularitzarako zeukan zaletasuna: "Kirol arriskutsua eta gogorra zela esaten zidaten; ikasketei lehentasuna eman behar niela... Horrek bizikletan ibiltzeko amorru handiagoa piztu zidan". Hemeretzi urterekin baimena atera zuen eta hasieran talde barik hasi zen lasterketetan: "Handik gutxira, Peña Elortza taldeak fitxatu ninduen afizionatuetan, eta gero, Kas eta Olsa taldeetan izan nintzen". 1970ean eta 1972an erlojukontrako Gipuzkoako txapelduna izan zen afizionatuetan, eta Espainiako txapeldunorde Gipuzkoako taldearekin, erlojukontra ere bai. Logroñon jokatutako Espainiako txapelketan bigarren izan zen errepideko proban.

1973. urtean Kas talde profesionalarekin debutatu zuen. Dalmacio Langarica zen managerra. Munduko talderik indartsuenetakoa zuen Kasek orduan: Perurena, Migel Mari Lasa, Jose Manuel Fuente... Izarrez betetako taldea zenez, ezinezkoa izan zitzaion itzuli handi baten esku hartzea, eta pena handia du Tourra ez zuelako korritzerik izan: "Mutikotan, hori zen gure ametsa". Merckx txapeldun handiarekin batera ere aritu zen behin baino gehiagotan, eta, umorez, irteeran bakarrik ikusten zuela dio. Soldadutzara joatea egokitu zitzaionean, 24 urterekin, txirrindularitza uztea erabaki zuen: "Denbora osoko arduraldia eskatzen du kirol honek; ez naiz damutzen orduan hartutako erabakiaz". Ordutik hona, Antzuolako Goizper enpresan dabil lanean.

Orain, komunikabideen bidez jarraitzen du txirrindularitza. Gaur egun txirrindularitzan prestaketa askoz gehiago zaintzen dela dio. / E. M.



> *"Soldadutzara joatea egokitu zitzaidanean txirrindularitza uztea erabaki nuen, eta ez naiz damutzen"*

Santi Aiastui • Urretxu • 1949



# Nire Pronostikoa

ANDONI AZKARGORTA/ Antzuolako futbol taldeko entrenatzailea

Santanderren irabazi ostean, Realak beste partidu garrantzitsu bat jokatuko du Celtaren aurka. Partidu hori irabaztea derrigorrezkoa da txuri-urdinek sailkapenean gora egiteko. Nire ustez, erraz eskuratuko dituzte hiru puntuak. Athleticek, aldiz, partidu zaila izango du Bartzelonan, zuri-gorriak ez dabiltzalako oso fin etxetik kanpoko partiduetan. Bestalde, pilotan, Etxaniz- Imaz eta Retegi II.a-Errasti bikoteek euren partiduak irabaziko dituztela uste dut. Hala ere, nire ustez, Alustiza-Beloki bikoteak ditu aukera gehien txapela irabazteko.

**Astebukaera honetako partiduak**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A/ | Etxaniz-Imaz | 22 | Olaizola II.a-Berna | 14 |
| B/ | Retegi II.a-Errasti | 22 | Unanue-Patxi Ruiz | 19 |
| C/ | Reala | 3 | Celta | 1 |
| D/ | Bartzelona | 3 | Athletic | 0 |


errekalde-zuazola-larraña
oñatiko euskal eskola publikoa
AURREMATRIKULAZIOA 2001 - 2002
D Eredua
OTSAILAK 5-16
GARRAIOA DOAN
JANTOKIA DIRUZ LAGUNDUA
ESKOLAZ KANPOKOAK
HAUR eta LEHEN HEZKUNTZA
2 - 12 URTE
DBH / ESO
12 - 16 URTE
EUSKALDUNA
INTEGRATZAILEA
KALITATEDUNA
MATRIKULA DOAN
ERREKALDE HERRI ESKOLA
943 78 07 64
Informazio bilera:
Otsailaren 6an, 18:00etan, eskolako aretoan
Gela irekiak:
Otsailaren 3an, larunbata, 16:00etatik aurrera
OÑATIKO INSTITUTUA
Aita Madina, z/g
943 78 12 68
Informazio bilera eta gela irekiak:
Otsailaren 8an, 18:30ean,


Eskelak, urteurren mezak edo eskertzak GOIENKARIAn.
Bailarako hedabide nagusia.
Astero 20.000 etxetan.
Prezioa: 10.000 pezeta.

# Goienka2a

Egubakoitza / 2001eko otsailaren 2a

Kultura eta Aisialdia

Otsailaren 2tik 9ra




# Graffitiak

Model pastel, Free Style, Wild style…, graffiti estiloen izenak dira, ingelesetik hartutako berbak, hain zuzen. Izan ere, graffitiak edo espraiz egindako hormirudi handiak Amerikako Estatu Batuetatik heldu zaizkigu, mende honetako beste hainbat kultura eta gazte mugimendu bezala. Lehenengo graffitiak New Yorken agertu ziren 60ko hamarkadan, Taki 183 ospetsuarenak, hain justu. Hasieran, errotuladorez egindako sinadurak ziren, eta batez ere metroko geltokietan egiten zituzten. Poliki-poliki, forma eta kolore gehiago hartzen joan ziren eta 70 eta 80ko hamarkadetan musika edo gazte mugimendu zabalagoen baitan zeuden: Hip-hop mugimenduan, esaterako. Europara 80ko hamarkadan heldu ziren. Londres, Paris eta Berlin bezalako hiri handietan agertu ziren lehenengoak. Euskal Herrian indarrez sartu ziren 90eko hamarkada erdialdean, Gasteizen eta Bilbon, batez ere. /14

GOIO ARANA / GRAFFITIAK: PENI

Lehiaketak | Arrasteko Gure Leku tabernaren **arte lehiaketa**

# Arte plastikoen III. lehiaketa

MARIJO DEOGRACIAS

Arrasateko Gure Leku tabernak hirugarren aldiz antolatu du arte plastikoen lehiaketa. Melchor eta Agustin Murillo anaiek "gure herrian dauden artistei euren lanak erakusteko aukera eman" gura zieten, eta hori dela eta, lehiaketa hori antolatzea erabaki zuten. "Hasieran, irabazleari lanak erakusteko aukera ematea ere pentsatu genuen, baina aurkezten direnetako askok lan bakarra izaten dute; hortaz, gure helburua ahalik eta esku hartze zabalena izatea zenez, asmo hori bertan behera utzi genuen. Hala ere, tabernaren itxura aldatzen dugu, aurkezten diren lanen erakusketa egiten dugu eta".

Margolanzaleak dira Murillo anaiak, baina hori baino lehiaketa zabalagoa gura zuten, eta horren adibide dira aurkeztutako lanak: argazkiak, collage-ak, eskulturak, ordenagailuz manipulatutako irudiak eta baita beste artelan berezi bat ere: "Neska batek ehunez egindako koadro itxurako artelan bat ekarri zigun, eta horrenbeste gustatu zitzaigun, azkenean erakusketa antolatu geniola".

Aurreko aldietan, Euskal Autonomia Erkidegoko artista gazteen lanak jaso dituzte Gure Lekun, baina aurten, badirudi kanpoko lanik ere jasoko dutela. "Madrildik eta Kordobatik ere deitu digute hainbat lagunek, lehiaketaren berri izan dutela-eta, argibideak eskatzeko. Gure asmoa ez da lehiaketaren lur eremua zabaltzea, baina aurten, horrela gertatu da eta agian, lanen kalitatean eragingo du".



**Eluska Zabalo arrasatearra, 1998ko aldian irabazitako saria jasotzen. Iaz Dani Laskurain bergarararrak irabazi zuen.**

### EPAIMAHAIA

Arte plastikoen lehiaketak jendearen esku hartzea bultzatu gura duela-eta, tabernara joaten den jendeak du lan onena aukeratzeko ardura. Pertsona bakoitzak bina boto eman dezake, eta horren arabera, lau lan aukeratuko dira. Gero, Melchor, Agustin, Cesar Cimiano "Txifi" eta Jose Luis Heriz "Pepelu"ren artean aukeratzen dute irabazlea. "Txifi" Arte Ederretan lizentziaduna eta diseinatzaile grafikoa da; Pepelu ingeniari teknikoa da, baina horrez gain, master bat egin zuen diseinuan eta Gure Leku tabernaren diseinuaren egilea da. "Hasiera-hasieratik, laurok osatu dugu epaimahaia, eta ondo doakigu; gainera, laurok ditugu gustuko artelanak".

## Oinarriak

- Lanak otsailaren 28a baino lehen aurkeztu beharko dira.
- Gaia, teknika eta neurriak aukerakoak dira.
- Aurkeztutako lan guztien artean lehen aukeraketa bat egingo da eta Gure Lekun erakutsiko dira lanak, harik eta epaimahaiak azken hitza eman arte.
- Saria eman barik gera daiteke.
- Saritutako lana Gure Lekurendako izango da.
- Epaimahaiak apirilaren 4an jakinaraziko du irabazlearen izena.
- Aldi berean, Txillida Leku ikustera joateko hamar sarrera zozkatuko dira boto emaileen artean.
- Posta-e: bargureleku1984@terra.es

Nire aukera

## Joseba Lopez de Armentia

**Liburutegiko arduraduna**



Zinema aretoetan baino, liburu artean ematen ditut egunak. Horregatik, nire aukera liburu zoragarri baten oinarrituriko pelikula bat da: Jose Luis Cuerdaren *La lengua de las mariposas*, hain zuzen ere. Film hori Manuel Rivas idazlearen *Que me quieres amor* ipuin-liburuko istorio baten oinarrituta dago. Jeneralean, zinema espainarrean Francoren garaiko maisu gaizto eta gogorrak ikustera ohituta gaude. Pelikula honetan, baina, gerraren eta Francoren diktaduraren aurretik, noizbait, askatasun handiko egunak ere bizi izan zirela kontatzen digu Cuerdak.

### 'LA LENGUA DE LAS MARIPOSAS'

**Jose Luis Cuerda**




IÑIGO BIAIN

## Kaleratu berriak

**Iban Arantzabal**

LIBURUA | *Nobela*




**EGONEAN DOAZEN GEZIAK**
Joserra Garzia
Alberdania
202 orrialde

Joserra Garziak gezi itxurako pentsamenduen bidez ematen digu ikusten duenaren berri, jomuga jotakoan irakurleoi dardara doia eragitera iritsiz. Berak azkura sentitzen duelako jaurtitzen du gezilariak gezia, jomugan duenari azkura hori txertatu beste asmorik gabe. Jomugan dituenen jomuga izatea du gezilariak amets. Hargatik jaurtitzen ditu egonean doazen geziok. Hiztegi eran atondua egon arren, ez da definizio hutsez beteriko liburua, berbei buelta eta erdi emanez hausnarketa eragiten duena baizik.

LIBURUA | *Nobela*




**GAUAK ETA HIRIAK**
Ur Apalategi
Erein
250 orrialde

Atxagaren gainean egin duen doktorego tesia argitaratzear duela, Ur Apalategik *Gauak eta Hiriak* liburua atera du Ereinen eskutik. Gaztetan bizi izaten diren adiskidetasuna eta gorroto egoerak, maitasun eta jelosi sentimenduak, eta gazte izateak askotan berarekin dakartzan konplexuen gainean dihardu Apalategik. Pertsonaia mailaraino jaso daiteke "gaua" ere, benetako izarra delako eta kontakizunen pisua gauaren inguruan dabilelako. Sentimenduak gogortasunean eta xamurtasunean adierazten dituen liburua, duda barik.

DISKOA | *Pastoralak eta kantuak*




**ETXAHUN 1907-1979**
Etxahun
Elkarlanean
22 kantu

Xiberoak plazagizon xume eta soil bezain emankor eta liluragarri honi zor dio, neurri handi baten, kulturaren ezagutza. Koblakaria, poeta, kantore egile eta pastoral idazle zen Etxahun. Bederatzi pastoralez gain, hainbat kantu ondu ditu eta horien artean gehienondako ezagunak diren *Agur Xiberoa, Goizian argi astian...*

Lan biluzia izanik, askorendako gogorra izan daiteke, batez ere, lehengo entzunaldia; dena dela, eta tabernetan bolumen handian entzungo ez bada ere, *batze lana betiko geratuko da grabatuta. Ez da gutxi!*

GOIENKARIA
Egubakoitza / 2001eko otsailaren 2a

# Otsaila: 2-9

**Edu Mendibil** | Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12.00ak baino lehenago • Posta-e: **erredakzioa@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## Antzerkia

**ARRASATE**

> **Txalo** taldearen *El hombre que confundió a su mujer con un sombrero* antzezlana domekan, hilak 4, Amaia antzokian, 19:30ean.

**BERGARA**

> **Academica palanca** taldearen *Con un canto en los dientes* antzezlana egubakoitzean, hilak 2, Novedades aretoan, 22:30ean.

**ELGOIBAR**

> **Maskarada** taldearen *Kaio, luma zikina* antzezlana egubakoitzean, hilak 2, herriko antzokian, 22:30ean.

## Musika

**BERGARA**

> **Texas Terri, PPM** eta **Hot dogs** taldeak egubakoitzean, hilak 2, Jam aretoan, 22:00etan.
> **Banda Jachis** eta **Deskontrol** taldeak zapatuan, hilak 3, Jam aretoan, 22:00etan.
> **Fly shit, Folkore** eta **Ira et Decesus** taldeak zapatuan, hilak 3, gaztetxean, 22:30ean.
> **Babes in Toyland** eta **Doss** taldeak hilaren 10ean, Jam aretoan.

**OÑATI**

> **Michael Weston King, Andy White** eta **Jackie Leven** egubakoitzean, hilak 2, gaztelekuan, 22:30ean. Liliput kontzertuen programazioaren barruan.

**ELORRIO**

> **Jabier Muguruza** (soinua, ahotsa), **Txema Garces** (baxua), **Mikel Azpiroz** (teklatuak) eta **Igor Telletxea** (bateria) egubakoitzean, hilak 2, Elorrioko Ateneoan, 23:00etan.
> **Tomasito**, datorren egubakoitzean, hilak 9, 23:00etan. Arriolako III. flamenko emanaldien barruan.

## Erakusketak

**ARRASATE**

> **Gurutze Mujika** margolari atxabaltarraren erakusketa Harresi aretoan, otsailaren 4a arte.
> **Jose Zuñaurre** margolari bizkaitarraren lanak Toki-Eder kafetegian, otsailaren bukaera arte.
> **Gizakien lurra** gobernuz kanpoko erakundeak, Medicus Mundirekin batera, argazki erakusketa antolatu du kultura etxean.
> **Iñaki Bruñaren** margolan eta eskultura erakusketa Udalako Larrinetxe jatetxean, martxoa bitartean.

**BERGARA**

> **Ane Garces** eta **Gorka Elortzaren** olioak eta lumatxoak Nahikari tabernan.

**DURANGO**

> **Juan Jose Altuna Akizu** bergararraren margolan erakusketa Durangoko Arte eta Historia museoan (San Agustinalde, 16), otsailaren 25a arte.



**BILBO**

> **Bingen De Pedro** bergararraren margolan erakusketa Bilboko Berta Belaza galerian (Arrikibar plaza, 5), otsailaren 23a arte.

## Lehiaketak

**ARRASATE**

> **XIV. Arrasate lehiaketak:** ipuina, poesia, bertsopaperak, komikia, euskalki grabazioa eta irratierreportajea. Mugaeguna: otsailaren 5a. Argibideak 943 77 12 28 zenbakian.
> **Arte plastikoen III. lehiaketa** deitu du Arrasateko Gure Leku tabernak. 125.000 pezetako saria emango da. Lanak ondoko helbidera bidali beharko dira, otsailaren 28a baino lehen: Gure Leku taberna. Zarugalde, 17-behea. 20500. Arrasate.

## Ikastaroak

**ARETXABALETA**

> **Areto dantzen ikastaroa,** Loramendi euskara elkarteak eta Tril emakume taldeak antolatuta. Egubakoitzetan izango da, 19:00etatik 20:30era. Irakaslea Natalio Maiztegi izango da. Izenematea eta argibideak Loramendi elkartean edo 943 77 09 70 telefonoan.

**ARRASATE**

> ***Masaje bateratua*** ikastaroa antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak. Zapatuetan, 17:00etatik 20:00etara. Argibideak 943 79 35 76 zenbakian.
> **Alboka** eta **txalaparta** ikastaroak antolatu ditu Arrasateko Udaleko Gazteria Sailak. Albokakoa San Juanak bitartean emango da zapatuetan, Arrasate Musikalen, goizez. Txalapartakoa, aldiz, astelehen eta egubakoitzetan izango da, Musakolako saloian, arratsaldez. Argibide gehiago 943 77 00 65 telefono zenbakian.

**BERGARA**

> **Jantzigintza** ikastaroa Anezkan, Espoloian, astelehen eta eguazten arratsaldeetan. Eguenetan ere ikastaro bat izango da: **Makina bidez bordatzeko** ikastaroa, hain zuzen. Eskolak, egunero, bi ordukoak izango dira. Argibideak 943 76 59 25 telefonoan.

**ELGETA**

> **Aerobikeko monitore ikastaroa,** titulu ofiziala eta homologatua jaso nahi dutenendako, Debagoieneko kirol zerbitzuek antolatuta. Baldintzak: 16 urte beteta izatea eta eskola-graduatua edo DBHko 2. maila gainditute izatea. Eskolak Elgetan izango dira, zapatuetan eta domeketan. Prezioa: 125.000 pezeta Debagoieneko kirol zerbitzuetako abonatuendako, eta gainerakoendako, 135.000. Izena emateko epea otsailaren 5ean bukatuko da. Argibideak Debagoieneko kirol zerbitzuetan.

**BERGARA**

> ***Artearen historia*** izeneko ikastaroa. Irakaslea Oihana Garitano izango da. Izen-ematea Etxepare liburu dendan. Argibideak 943 76 35 99 telefono zenbakian.

## Deiak

**ARRASATE**

> **El Salvadorri** laguntza emateko, kontua zabaldu du Medicus Mundi erakundeak: BSCH 0049 0001 59 2810016616.
> ***Euskalerrirako marko politiko berri baterantz*** proposamena aurkeztuko du EAk datorren eguenean, hilak 8, udaleko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean. Begoña Lasagabaster eta Iñaki Galdos egongo dira, EAren asmoen berri emateko.

**ARETXABALETA**

> **Eski irteera.** Murrukixo mendizale elkarteak eski irteera antolatu du otsailaren 17 eta 18rako Luz Saint Sauviert-era, Gavarnie eta Luz Ardideneko estazioetan eskiatzeko. Ikasle bazkideendako, 11.000 pezeta; gainerako bazkideendako, 12.000; eta gainerakoendako, 13.000 pezeta. Autobusa, ostatua eta estaziorako sarrera eta asegurua barne.

**BERGARA**

> ***Educa, no pegues*** hitzaldia martitzenean, hilak 6, Bergarako kultura etxean, 18:30ean. Guraso eta irakasleendako. Hizlaria: Nati Gutierrez, psikologoa eta familia terapeuta, adin txikikoen arazoetan aditua. Aranzadi Ikastolak antolatu du, udaleko Ongizate Zerbitzuaren laguntzaz.
> ***Helduen eta adosleszenteen arteko harremanak*** hitzaldia eguenean, hilak 8, Bergarako kultura etxean, 18:30ean. Guraso eta irakasleendako. Hizlaria: Iñaki Martinez, gaztaroaren arazoen inguruan guraso eta irakasleen orientazioan aditua. Aranzadi Ikastolak antolatu du, udaleko Ongizate Zerbitzuaren laguntzaz.
> **DBHren gaineko batzar informatiboa** egongo da astelehenean hilak 5, Ipintza institutuan, 19:00etan. 6. mailan dauden ikasleen gurasoendako.
> **Euskal Herriko Unibertsitatearen gaineko hitzaldia** izango da martitzenean, hilak 6, Ipintza institutuan, 18:30ean.
> **Arrasateko Unibertsitatearen gaineko hitzaldia** izango da eguenean, hilak 8, Ipintza institutuan, 18:30ean.
> **Nicola Lococo** filosofoaren *Carta a los vascos* liburuaren aurkezpena zapatuan, hilak 3, kultura etxean, 12:00etan.



ANTZERKIA

### EL HOMBRE QUE CONFUNDIÓ A SU MUJER CON UN SOMBRERO

Txalo taldeak Oliver Sacks (Londres, 1933) mediku eta idazlearen lan baten oinarritu du azken lana. Mediku historiak dira lanaren ardatz, aktoreei interpretazio lan zehatza eta pertsonaienganako maitasuna eskatu diena. Ramon Barearen zuzendaritzapean, Paco Sagarzazu, Inaxio Tolosa, Ander Lipus, Itziar Lazkano, Jone Irabazal eta Ramon Barea bera ditugu antzezlaneko protagonistak.

**Noiz:** Domeka, hilak 4. **Tokia:** Arrasateko Amaia antzokia. **Ordua:** 19:30. **Sarrera:** 1.000 pezeta (Gazte txartela: 800 pezeta).

**> Bergarako gaztetxean** zinema emanaldiak eguaztenero, 21:30ean.

### ESKORIATZA

***> Beharrezkoak al dira mugak eta arauak haurraren heziketan?*** hitzaldia eguenean, hilak 8, Luis Ezeiza herri eskolan, 18:00etan.

### OÑATI

**> Mendi irteera:** Mañaria-Mugarra-Dima. Otsailaren 11n, goizeko 8etan. Izen-ematea: Aloña tabernan, otsailaren 9a baino lehen.

## Jaiak

### ARRASATE

**> Santa Ageda jaiak.** Egubakoitzean, hilak 2, auzo afaria Jentil Ola elkartean, 20:30ean. Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña bertsolariak egongo dira. Jarraian, Txinparta taldearekin dantzaldia. Zapatuan, hilak 3, umeendako jolasak 11:00etan; eguerdiko 12:00etan hildako auzotarren aldeko meza; 14:30ean auzoko abesbatza irtengo da, Santa Agedaren omenez abesteko. Gauean dantzaldia, Txinparta taldearekin. Domekan, hilak 4, 12:00etan meza nagusia, Gesalibar eta Garagartzako koroek abestuta; 16:30ean mus txapelketa Jentil Ola elkartean. Bukatzeko, astelehenean, hilak 5, Santa Agedaren omenezko meza auzoko koroak abestuta, 18:30ean.

### BERGARA

**> San Blas jaiak Murinondon.** Egubakoitzean, hilak 2, auzo afaria 20:30ean; jarraian, erromeria Jarduneko trikitilariekin. Zapatuan, hilak 3, San Blas eguna ospatuko da: meza nagusia eta opilak bedeinkatzea 11:00etan; gero, salda, txorizoa eta ardoa auzo elkartean. Jarraian, Bergarako orfeoi gaztearen emanaldia izango da eta arratsaldean, 16:00etan, mus txapelketa jokatuko da (izen-ematea: 2.000 pezeta bikote bakoitzeko). Domekan etxaflero jaurtiketa eta meza nagusia 11:00etan; horren ondoren, auzo elkartean salda banatuko dute eta 11:45ean Aranzadi Ikastola-Moises Aspiazu dantza taldearen saioa izango da. Jarraian, motozerraz egurra lantzeko ikuskizuna izango da eta eginiko irudiak zozkatu egingo dira han elkartutakoen artean. Segidan, ume eta helduendako txerri harrapaketa eta kukainak. Bukatzeko, astelehenean, Santa Ageda egunean, San Blas ermitako ermandadeko kideen batzarra egingo da 19:00etan.

### ARETXABALETA

**> San Blas jaiak.** Zapatuan, hilak 3, San Blas eguna dela-eta, Murrukixo mendi elkarteak Sailuente ermitara irteera egingo du gaztetxoekin, 09:30ean, partenoitik. Sailuenten meza izango da 10:30ean, eta 11:15ean janari eta erramuak bedeinkatuko dira.

**> Santa Ageda.** Domekan, hilak 4, neska-mutilak baserriz baserri joango dira kantuan. Astelehenean, hilak 5, kalean kantatu eta dirua batuko dute. Lehen dantza saioa herriko plazan, 19:00etan.

## Museoak

### ESKORIATZA

**> Eskoriatzako museo eskola.** Hidalga, 5. Euskal Herriko historia, historiaurrea eta etnografia. Martitzenetik domekara, 17:00etatik 20:00etara. Astelehenetan itxita. Bisitaldi gidatuak. 943 71 54 53.

### ELGOIBAR

**> Makina-erremintaren museoa.** San Roke auzoa, 1. Astelehenetik egubakoitzera, 08:00etatik 13:00etara eta 14:30etik 17:30era.

### BILBO

**> Guggenheim museoa.** Abandoibarra etorbidea, 2. Martitzenetik domekara, 10:00etatik 22:00etara. Martxoa bitartean, Panzaren bildumaren erakusketa (arte minimalista) ikusgai.

# Zinema

**ARRASATE / ALAI ZINEMA**

***Al diablo con el diablo***
Egubakoitza: 19:00, 22:00.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00:
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:00, 21:30.

**AMAIA**

***La ducha***
Eguena, zine-kluba: 21:30.

**BERGARA / NOVEDADES**

***Scary movie***
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

***La sabiduría de los cocodrilos***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**OÑATI / SANTANA**

***Lo que la verdad esconde***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***Las aventuras del príncipe valiente***
Domeka: 17:00.

***El camino a casa***
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**EIBAR**

**UNZAGA**

***Límite vertical***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**RIALTO**

***Granujas de medio pelo***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

***Dinosaurio***
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**ELGOIBAR / HERRIKO ANTZOKIA**

***Baílame el agua***
Zapatua: 19:30, 22:15.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 22:15.

***Santitos***
Eguena, zine-kluba: 21:30.

**ELORRIO / ARRIOLA**

***Otoño en Nueva York***
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.

***Los picapiedra en Viva Rock Vegas***
Domeka: 17:00.

***La ley de Herodes***
Astelehena: 20:00.

***Sexo por compasión***
Eguena, zine-kluba: 20:15.

**AZKOITIA / BAZTARTXO**

***Bajo el peso de la ley***
Egubakoitza: 22:00.

***El sexto día***
Zapatua: 22:00.
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

**GASTEIZ**

**GURIDI**

***El protegido***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguaztenera: 17:30, 20:00, 22:30.
Eguena: 17:30, 20:00, 22:45.

***Family man***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***La copa dorada***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Nueces para el amor***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 01:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguaztenera: 17:00, 19:45, 22:30.
Eguena: 17:00, 22:30.

***Ni uno menos***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Límite vertical***
Egubakoitza: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:00, 19:45, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Al diablo con el diablo***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Zapatua: 17:30, 20:00, 22:30, 1:00.
Domekatik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**MIKELDI ZINEMAK**

***La bendición***
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Náufrago***
Egubakoitza:17:00, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:00, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:00, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:00, 19:45, 22:30.

***Al diablo con el diablo***
Egubakoitza:17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:30, 18:30, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Los padres de ella***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***La copa dorada***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Family man***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 17:15, 20:00, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

***Algo que contar***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***El protegido***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 17:15, 20:00, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:15, 20:00, 22:30.

***Billy Elliot***
Egubakoitza: 17:30, 20:00, 22:45, 1:15.
Zapatua: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 1:15.
Domeka: 16:00, 18:15, 20:30, 22:45.
Astelehenetik eguenera: 17:30, 20:00, 22:30.

**MIKELDI ZINEMA**

***Dinosaurio***
Zapatua eta domeka: 16:30, 18:30.

***La comunidad***
Zapatu eta domeka: 20:30, 22:30.
Astebarruan: 17:30, 20:00, 22:30.

**SAMANIEGO**

***¿De qué planeta vienes?***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Memento***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.

***Lázaro de Tormes***
Egunero: 20:00, 22:30.

***Todo me pasa a mi***
Egunero: 17:30.

***Los padres de ella***
Egunero: 17:30, 20:00, 22:30.




**LO QUE LA VERDAD ESCONDE**
**ZUZENDARIA: ROBERT ZEMECKIS. AKTOREAK: HARRISON FORD, MICHELLE PFEIFFER. > 13 URTE**
Robert Zemeckis zuzendariak (*Forrest Gump, Náufrago*) tentsioz beteriko filma dakarkigu oraingoan. *Spencer* medikua (Harrison Ford) pozik bizi da *Claire* emaztearekin (Michelle Pfeiffer). Hala ere, aurretik, modu misteriotsuan hil zen emakume batekin amodio abentura izan zuen, eta emazteari iruditzen zaio hildakoaren mamua ikusten duela. Hortik aurrera, bikote protagonistak hainbat arazori egin beharko dio aurre.

**AL DIABLO CON EL DIABLO**
**ZUZENDARIA: HAROLD RAMIS. AKTOREAK: ELIZABETH HURLEY, BRENDAN FRASER, FRANCES O´CONNOR. > 13 URTE**
*Elliot* ez da munduko gizonik zoriontsuena, ezta gutxiagorik ere. Lankide batekin maiteminduta dago, baina lankideak ez dio jaramonik egiten. Egoera horretan, etsituta guztiz, deabruari arima saltzea erabakiko du zazpi desioren truke. Bere bizitza erabat aldatuko da eta egoera harrigarrienei ere aurre egin beharko die.

Telebista

# ugari

dago mundu zabalean,

# baina

bailarakoa,

# bakarra.

Goitb

Goiena Telebista

## JAIOTAKOAK

**Odei De la Torre Urzelai**
Urtarrilaren 15ean, Aramaion.

**Asier Eslava Nieves**
Urtarrilaren 20an, Arrasaten.

**Kirian Martin Astuy**
Urtarrilaren 23an, Oñatin.

**Paula Rubio Oñate**
Urtarrilaren 25ean, Eskoriatzan.

**Iker Lekuona Ruiz**
Urtarrilaren 26an, Eskoriatzan.

**Ainara Rubio Matilla**
Urtarrilaren 28an, Bergaran.

**Garazi Barandiaran Palma**
Urtarrilaren 29an, Eskoriatzan.

**Ander Biain Arruti**
Urtarrilaren 30ean, Oñatin.

**Jone Ibarra Guridi**
Urtarrilaren 30ean, Bergaran.

## HILDAKOAK

**Pablo Herraniz Pastor**
Arrasaten, urtarrilaren 24an,
84 urte zituela.

**Alicia Perez Hurtado**
Bergaran, urtarrilaren 25ean,
30 urte zituela.

**Juan Zabala Madina**
Arrasaten, urtarrilaren 25ean,
73 urte zituela.

**Juan Agustin Hernandez Fiz**
Arrasaten, urtarrilaren 26an,
91 urte zituela.

**Julia Albistegi Ugalde**
Arrasaten, urtarrilaren 27an,
75 urte zituela.

**Eugenia Garai Iribecampos**
arrasaten, urtarrilaren 28an,
84 urte zituela.

**Ignacio Gallastegi Osoro**
Elgetan, urtarrilaren 28an,
78 urte zituela.

**Miguel Fernandez Garcia**
Arrasaten, urtarrilaren 29an,
73 urte zituela.

**Valentin Santos Rivas**
Bergaran, urtarrilaren 30ean,
63 urte zituela.

**Ines Azkarate Beloki**
Eskoriatzan, urtarrilaren 30ean,
84 urte zituela.

## EZKONDUAK

**Joseba Xabier Gantxegi Ansola** eta **Marta Andrea Renner Viveros,**
Bergaran, urtarrilaren 22an.

**Luis Mari Fernandez Seco** eta **Mari Karmen Perez Hidalgo**,
Aretxabaletan, urtarrilaren 27an.



**Paula Rubio** Oñati eskoriatzarra osaba **Roberto**rekin. Paula urtarrilaren 25ean jaio zen Arrasateko ospitalean, eta 3,200 kilo pisatu zuen. Ama Lourdes Oñati da, mondragoetarra; aita, Jabier Rubio, eskoriatzarra da.



**Ainara Rubio Matilla** bergararra eta ama, **Edurne,** bergararra hau ere. Ainara urtarrilaren 28an jaio zen Arrasateko ospitalean, eta 2,995 kilo pisatu zuen. Aita **Luis Rubio** da, bergararra



**Kirian Martin Astuy** oñatiarra **Concepcion** amaren besoetan, oñatiarra hau ere. Urtarrilaren 23an jaio zen Kirian, eta 3,260 kilo pisatu zuen. Aita **Isidro Martin** da, oñatiarra.



**Garazi Barandiaran Palma** eskoriatzarra urtarrilaren 29an jaio zen Arrasateko ospitalean, eta 3,200 kilo pisatu zuen. Argazkian, amarekin, **Eva Palma** mondragoetarra. Aita **Mikel Barandiaran** da, eskoriatzarra.

**Zure lagun edo senitartekoren bat ezkontzekotan badago eta zoriondu nahi baduzu, hemen duzu aukera. Ekarri bikotearen argazki bat *Goienkaria*ko erredakziora edo egoitza hauetara: *Aretxagazeta* eta *Arrasate Press*eko egoitzetara.**

Eskela, urteurren meza edo eskertzarik jarri nahi baduzu, etor zaitez *Goienkaria*ren ordezkaritzetako batera.

BERGARAN, *Berrigarar*en egoitzan, Barrenkalea, 33
943 76 92 71 (*Goienkaria*)
ARRASATEN, ARKOren egoitzan; Otalora Lizentziaduna, 31
943 71 25 11
ARETXABALETAN, *Aretxagazeta*ren egoitzan; Durana, 11
943 79 86 21
ARAMAION, Kintelena dendan; Nardeaga, 11
945 44 50 22
ELGETAN, Mari Asun Agirre dendan; Salbador, 26
943 76 81 90
ANTZUOLAN, Itzar liburu dendan; Kalebarren, 1
943 76 60 62

### ESKER ONA

## Daniel Igartua Arana

Aretxabaletan hil zen
2001eko urtarrilaren 18an,
71 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei*
*eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,*
*eskerrik asko sendikoen izenean.*

### ESKER ONA

## Arantxa Idigoras Guridi



Donostian hil zen
2001eko urtarrilaren 24an,
62 urte zituela.

Zure senideok ez zaitugu ahaztuko

*Hileta-elizkizunetara joandakoei*
*eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,*
*eskerrik asko sendikoen izenean.*

## Hitz gurutzatuak

Luma



**Ezker eskuma**

1/ Marinel. 2/ Irakaslea. Behi. 3/ Iluntzearen hasieran. Ehundaka. 4/ Jakina! Nafarroako urtegia. 5/ Tona. Joan aditzaren erroan. Prezipitazio-mota. 6/ Bazekien. Barazki-mota. 7/ Garoa. Alkoholeri bukaeran. 8/ Bokal errepikatua. Hegazti-mota. 9/ Hegazti-mota. Sindikatu abertzalea. 10/ Egoera larri. Barazki-mota.

**Goitik behera**

1/ Keinuak. 2/ Arto-irinez egineko opila. Jausi. 3/ Musika nota. Lokarria. Ornoaren erdian. 4/ Nekez asetzen direnak. 5/ Alabaren senar. Ezinezkoa. 6/ Egunaren atal. Gizon izena. 7/ Bat. Ni. Lehena eta bostgarren bokalak. Berrogeita hamar. 8/ Infin, zakuratu. Bilo. 9/ Olariak. 10/ Neona. Iodoa. Emea gurasoekiko.

## Bila-bila 7







## Umore giroan

David Peñalver

**69 POSTURIA**
Mutil bat bere neskiari 69 postura erotikua zelan egin bihar dan erakustera doia. Sartu die ohian eta mutilak puskar bat bota dau. Halako baten, beste puskar bat jausi jako eta esan dotsa neskiak:
- Hi, beste 67xak heure amandako gordeik!
- Bai, hiru pare be, probau jittuat hirurak eta bata be ez dok neria.

**HAGIN POSTIZUAK**
Tipo bat komun baten sartu da eta han dago belauniko Leontxio, ahua kakaz beteta dabela.
- Hi, Leontxio, zertan habil?
- Txahala egitten najauan eta hagin postizuak komun zulora jausi jataz.
- Ba, hor egongo dittuk!

**NOBIXUA**
Bi neska barriketan:
- Badakin, Luixekin oin bi hillabete dala zelan moztu neban...
- Ondo egin don, kalamidade, faltsu eta harro bat don!
- Baiña, atzo hasi giñuzan barriro!

**ONDASUNAK**
Amak alabiari:
- Alaba, zure gizona izango danak zure ondasunengaittik ez dotsu galdetzen?
- Ez, ama, zuriengaittik galdetzen dosta.

## Ezetz asmatu!

Estepan Plazaola



### Zein da zaharren eta gazteen arteko proportzioa?

Hainbat aldiz entzuten ari gara gure herriak zahartzen ari direla. Esaterako, 1886ko erroldaren arabera, Debagoienean 0-14 urte bitartekoak biztanle guztien %22 ziren eta 65 urtez gorakoak, %9. Handik hamar urtera, proportzio horiek dezente aldatuta zeuden. Asmatuko zenuke 1996an errolda egin zenean zeintzuk ziren proportzioak?

- 0-14 urte bitartekoak, %18; eta 65 urtez gorakoak, %11.
- 0-14 urte bitartekoak, %13,7; eta 65 urtez gorakoak, %14,6.
- 0-14 urte bitartekoak, %16,2; eta 65 urtez gorakoak, %12,4.

**Erantzun zuzena:** 0-14 urte bitartekoak, %13,7; 65 urtez gorakoak, %14,6

### Soluzioak



**Ezker eskuma**

1/ Itsasgizon. 2/ Maisua. Ale. 3/ Il. Ehunka. 4/ Noski! Eugi.. 5/ T. Oa. Euri. 6/ Zekien. Aza. 7/ Iratzea. Ol. 8/ Oo. Zikoina. 9/ Arrano. LAB. 10/ Kinka. Leka.

**Goitik behera**

1/ Imintzioak. 2/ Talo. Erori. 3/ Si. Soka. Rn. 4/ Asekaitzak. 5/ Suhi. Ezina. 6/ Gau. Eneko. 7/ I. Neu. Ao. L. 8/ Zakura. Ile. 9/ Olagizonak. 10/ Ne. I. Alaba.

## Horoskopoa

Berenize

**ARIES**
*martxoak 21-apirilak 21*

Diruz ondo zabiltza eta eskuzabal izango zara zure inguruko lagun, lankide eta familiakoekin. Bizi poza antzematen zaizu. Amodio kontuetan ere egun onak izango dira. Hala ere, urduri samar ibiliko zara eta horrek osasun arazoak eragingo dizkizu.

**TAURUS**
*apirilak 22-maiatzak 21*

Lan kontuetan aldaketak izan ditzakezu; datorrena datorrela, zure onerako izango da, zorteko zaitugu eta. Osasuntsu eta baikor izango zara, bizitzaz gozatzeko irrikaz.

**GEMINI**
*maiatzak 22-ekainak 21*

Ametsak egiaztatzea oztopatzen dizun horri aurre egiteko sasoia da, eta, bide batez, egindako hutsak zuzentzeko. Arriskatzeko eta inprobisatzeko duzun erraztasunari hel iezaiozu. Baliteke amodio kontuen gaineko sekretu baten berri izatea. Ez izan kontakatilu.

**CANCER**
*ekainak 22-uztailak 22*

Gertaera garrantzitsuen aurrean zaude, baina ez zara gertaera horienprotagonista nagusia izango. Arazoei aurre egiteko, laguntza ezin hobeak jasoko dituzu. Neurrian ibili eta zaindu gorputza, bestela pot egin dezake eta.

**LEO**
*uztailak 23-abuztuak 22*

Izaera askotariko jendearekin izango duzu harremana, hauetako batzuk arte eta kultura arlokoak. Hortaz, gai horien inguruan eztabaidatzeko aukera izango duzu. Ahal izanez gero, aste honetan autorik ez gidatu, zirkulazio handia egongo da eta. Erosketak egitera irtengo zara, opari bat egin behar duzu eta.

**VIRGO**
*abuztuak 23-irailak 22*

Une egokia da lagun batekin izan zenuen gaizki ulertua argitzeko. Elkarrizketaren bidetik konpontzen dira arazoak. Zure inguruan dabilen tentsio giroa ezin izango duzu ekidin. Asper-asper eginda bukatuko duzu; onena, erretiratzea.

**LIBRA**
*irailak 23-urriak 22*

Ez izan uste txarrekoa, gauzak horrela gertatu badira, horrela gertatzekoak zirelako da. Ahaztu guztia eta neurrian hartu gauzak, sarritan gaziak gozoekin batera datoz eta. Une egokia da hainbeste prestatu duzun bidaia hori egiteko.

**SCORPIUS**
*urriak 23-azaroak 22*

Une egokia proiektu berriei ekiteko. Hala ere, ez ahaztu garrantzitsuena zu zeu zarela; hortaz, har ezazu denbora barruko penei erantzuteko eta eguneroko kontuei hobeto ekiteko.

**SAGITTARIUS**
*azaroak 23-abenduak 21*

Sasoiko zaude eta gauza berriak egiteko gogotsu. Baina, kontuz gehiegikeriekin, ezustekoren bat izan dezakezu eta. Eztabaidatan murgil zaitezke eta zeure iritzia inposatu gura izango duzu.

**CAPRICORNUS**
*abenduak 22-urtarrilak 20*

Bikotearekiko harremanak sakonak izango dira. Bestalde, ingurukoak inoiz baino adeitsuago egongo dira zurekin. Baina, zuhur jokatu, bestela nagusiarekin eztabaida izango duzu. Agian, lagunen batek goi mailako jatetxe batean afaltzera gonbidatuko zaitu.

**AQUARIUS**
*urtarrilak 21-otsailak 20*

Aste egokia da zure benetako izaera erakusteko. Umoretsu, alai eta sasoitsu sentituko zara, batez ere asteburuan, eta horrela sentiaraziko dituzu ingurukoak ere. Argi! Optikoarengana joan beharko zara, bistaren azterketa egiteko.

**PISCIS**
*otsailak 21-martxoak 20*

Familiartekoekin alaitsu egongo zara, baina baliteke eztabaidaren bat edo beste izatea. Dirua ardura barik gastatzeko joera izango duzu, baina ez zaitez pasatu. Helburuak lortzeko tinko jarraitu, ez zaitez kokildu.



# EGIN TXOTX! sagardotegietan



## Iturrieta

Iturrieta baserria / Arraga auzoa
ARAMAIO / 945 44 53 85

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegi garaian, sagardotegiko menua
- Etxeko sagardoa
- Ziburuak umeendako
- Bertako janaria
- **100 lagunendako lekua, eserita edo zutik**



## Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA
943 85 32 50

- Urte guztian zabalik
- Sagardotegiko menua
- Untxia eta arkumea enkarguz
- Labeldun okela
- Bertako janaria
- **55 lagunendako lekua**



## Katxarro

San Fausto, 17 / ELORRIO
94 658 29 67

- Urte osoan txotxean
- Sagardotegiko menua eta karta
- Labeldun okela
- **140 lagunendako lekua, eserita**



## Elutxeta

Elutxeta baserria / URNIETA
943 55 69 81

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Aste barruan egun osoan txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- **200 lagunendako lekua, eserita edo zutik.**



## Zabala

Garagartza baserria / ADUNA / (Andoain eta Billabona artean) / 943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz bukaera arte zabalik.
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz bakarrik.
- Bertako janaria.
- **150 lagunendako lekua, eserita edo zutik.**



## Rezola

Ipintza baserria / ASTIGARRAGA
943 55 66 37

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Zapatu eta domeka eguerdietan zabalik.
- Bertako janaria.
- Arkumea burduntzian eta arraina parrillan enkarguz.
- **100 lagunendako lekua, eserita.**



## Otatza

Otatza baserria / ZERAIN
943 80 17 57

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria edo norberak ekarria.
- **170 lagunendako lekua, eserita edo zutik.**



## Aulia

Aulia Enea baserria / LEGORRETA
943 80 60 66

- Abendutik maiatz bukaera arte zabalik.
- Bertako janaria.
- **110 lagunendako lekua, eserita edo zutik.**



## Eizmendi

Osinaga auzoa / HERNANI
943 55 64 05 / 670 635 671

- Apiril bukaera arte zabalik.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria edo norberak ekarria.
- **150 lagunendako lekua.**

**Goienkaria**©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea, z/g • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea, 33 • 132 postakutxatila • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: goienkaria@goiena.com
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna, 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: arrasatepress@euskalnet.net
**Aretxabaleta** 20550 Durana, 11 • 151 postakutxatila • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: aretxagazeta@euskalnet.net
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea, z/g • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: publi@goiena.com
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 20.000 ale

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

EGUBAKOITZA, 2001eko otsailaren 2a

## *Atzeskua*

MAIDER OSA

# Aitor Zabaleta/Rallyetako gidaria

**Zein auto duzu?**
— BMW 320 bat daukat, berdea. Duela urte eta erdi inguru erosi nuen.

**— Zein edukitzea gustatuko litzaizuke?**
— Daukadanarekin konforme nago. Dena dela, nahiago nuke BMW M3 bat edukitzea, lasterketetakoa modukoa.

**— Noiztik rallyetako gidari eta zergatik?**
— Gidabaimena atera bezain laster hasi nintzen, 18 urterekin. Betidanik gustatu izan zait *gasolina*. Lehenengo, motoarekin hasi nintzen, eta gero, autoarekin.

**— Noiz, non eta zein autorekin egin zenuen lehen lasterketa?**
— Finca 900 batekin egin nuen lehen lasterketa. Azpeitian izan zen, Urrakiko igoeran.

**— Lasterketetatik kanpo ere abiadura gustatzen zaizu?**
— Askorik ez, baina pixka bat, bai. Lasterketetan uzten dugu barruan dugun amorru edo adrenalina guztia. Bi astebukaeran behin lasterketak izaten ditugunez…

**— Entrenamendu saioak non egiten dituzu?**
— Ez dut saiorik egiten, ez daukagulako autoekin entrenatzeko moduko zirkuiturik. Arineketan egiten dut, beste pixka bat bizikletan… Tailer mekaniko bat ere badut autoak konpontzeko, eta denbora laburra lagatzen dit gauza horietarako.

**— Zer behar da auto gidari ona izateko?**
— Gogoa edukitzea eta nork bere buruari helmuga jartzea. Nik pilotu izan nahi nuen, ahalik eta onena, baina helmuga asko jarri barik. Gaztelaniaz esaten den bezala, "Más hace el que quiere que el que puede". Komeni da apur bat burugogorra izatea, nahi dena lortu arte.

**— Isunik jarri dizute lasterregi gidatzeagatik?**
— Ez, oraindik, ez. Gaitz erdi!

**— Bizitzak eman dizun muturrekorik handiena?**
— Asko eman dizkit, baina ez dute zerikusirik autoekin. Lagunen batek bizkarra ematea, adibidez, edo norbaitek emandako hitza betetzen ez duenean.

**— Bizitza bizitzeko arrazoi bat.**
— Bizi nahi izatea.

**— Zerk eman dizu orain arte ilusiorik handiena?**
— Gure semearen jaiotzak. Bi urte eta erdiko semea daukat: Aitor.

**— Beharbada, bera ere auto gidari izango da…**
— Lehenengo, golfean erakutsiko diot, ea gustatzen zaion (je, je…).

**— Golfean jokatzea gustatzen zaizu, edo?**
— Ez, behin edo birritan probatu dut. Nire hobbia autoak dira. Hogei urtean gauza bera egiten ibili naiz, eta uste dut ez dudala astirik hartu beste ezertarako.

**— Rallyetan emakume gutxi ikusten da. Horren txarrak gara autoak gidatzen?**
— Munduko txapelketan bi emakume ibili ziren, eta nahiko onak ziren. Paris-Dakar ere emakumezko batek irabazi du: hortaz, ez zarete hain txarrak.




**"Oraindik ez didate isunik jarri lasterregi gidatzeagatik"**

**"Bizitzak muturreko asko eman dizkit, baina ez dute zerikusirik autoekin"**

**"Gure semearen jaiotzak eman dit ilusiorik handiena"**

▶ *Bergararra / 38 urte / Rallyetako gidaria*

## AIPAGARRI



**JUANITO ZELAIA**
**Oñati / Enpresaria**

Sabino Arana Fundazioak hainbat sari banatu zituen joan zen astean. Saritutakoen artean, Francesco Cossiga Italiako presidentea izandakoa, Joane Somarriba txirrindularia eta Ernest Lluch. Eta horien artean, debagoiendar bat: Juanito Zelaia oñatiarra. Urteetan, enpresaren eta euskararen alorretan egindako lanagatik saritu zuten.



**FERMIN MENDIZABAL**
**Donostia / Enpresaria**

Bergarako Mayc enpresako zuzendaria Euskal Ganberako presidente izendatu berri dute. Donostiarra da eta 55 urte ditu, baina 1993tik hona dago Mayc-en. 1998a ezkero, Gipuzkoako Merkataritza Ganberako burua da.



GUNEAK:



HAUR HEZKUNTZA
- Olarte (2-6 urte)
- Santa Teresa (2-6 urte)
- S. Viator Txiki (2-6 urte)
- Umezaintza (0-6 urte)
- Jose Arana-Almen (0-6 urte)
- Sta. Rita (2-6 urte)



LEHEN HEZKUNTZA (6-12 urte)
- Almen
- Gazteluondo
- Sta. Teresa
- S. Viator Txiki

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA (12-16 urte)
- Ferixalekua
- S. Viator
- Almen

Matrikula zabalik
Otsailaren 5etik -16ra

BULEGO INFORMATIBOAK

| Arrasate | Aretxabaleta | Eskoriatza |
|---|---|---|
| Ferixalekua | Arizmendi | Jose Arana-Almen |
| 15:00-19:00 | 17:00-19:00 | 14:00-18:00 |
| 943 77 20 25 | 943 79 31 32 | 943 71 44 86 |

Arizmendi ikastola